

ELKARRIZKETA: ELENA CANO • EKARPENAK: ATLASA.NET • EKARPENAK:
WEB 2.0 HEZKUNTZAN • GALDEIDAZUE: ANGEL PEREZ • BKZ ABENTURA •
ATZEKO ATETIK: JON ARRETXE

hh
hik hasi

139

4 EURO • 2009KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Herrietako kultur ondarea

Herritartasuna sustatzen



URTAROAK

LAU URTARO, LAU LIBURU

LEHEN HEZKUNTZAKO HAURRENTZAKO MATERIAL IKUSGARRIA,
ESKOLARAKO NAHIZ ETXERAKO EGOKIA



Ikasiz ondo pasatzeko



IPUINAK

IGARKIZUNAK

OLERKIAK

FITXAK

ERREZETAK

ESKULANAK

JOLASAK

elkar

28 PU

aurkibidea



8
gaia

HERRIETAKO KULTUR ONDAREA

uskal Herriko hainbat herritan, herri ondarearen gaineko proiektuak egiteko beharra ikusi dute bertako udalek. *Hik lasi* ere ari da herri batzuetan ondare kulturala berreskuratzen lanak egiten eta lan horren berri eman nahi izan izuegu ekaineko alean.



15
elkarrizketak

ELENA CANO

artzelonako Unibertsitateko irakaslea da Elena Cano, eta ebatziazioan aditua da. Gaitasunetan oinarritutako diseinuak ebatziazioaren ikuspegia aldatzera behartzen gaituela dio eta ebatziazioa bera, ikasteko aukera gisa hartu beharko genukeela dio.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HERRIETAKO KULTUR ONDAREA
HERRITARTASUNA SUSTATZEN

16 elkarrizketa
ELENA CANO

26 ekarpenak
atlasa.net

28 ekarpenak
Web 2.0 hezkuntzan

30 hezkidetzaz
Hezkidetzaz eta hezkuntza ez-formala

32 galdeidazue
Nola landu behar dugu kompetentzietan oinarritutako curriculum? Zer aldaketa dakartza? Eskolak berrasmatu behar al du?
Angel Pérez Gómez

35 berriak

40 nora joango gara?
BKZ Abentura
Nafarroa Garaiko Narbarten eta Nafarroa Behereko Bidarrain

42 Atzeko atetik
Jon Arretxe

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Errenteriako erraldoiak eta buruhandiak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-5-25). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala ekaina

Beti aukerak galtzen, galtzen, galtzen, galtzen, galtzen, galtzen...



Badoan Sailburuari buruz, zer esan genezake? Euskal curriculumaren garapena babestu al du? EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko eragileen elkarlana sustatu al du? Euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak gainditzeko legea egin al du? Nola jokatu du estatutik ezarri diren hezkuntza legeen eta dekretuen aurrean?

Amaitu da, jada, Tontxu Camposen legealdia. EAEko Hezkuntza Sailburutzan lau urte igaro ondoren, bere lana ebaluatzeko garaia iritsi da.

Duela lau urte, Anjeles Iztueta kargu utzi zuenean, zera genion: "...legealdiko lau urteak aztertuta, Anjeles Iztueta EAEko Hezkuntza Sailburuak Euskal Herria herri gisa kontuan hartu duela esan liteke. Eta gainera, ondorengo sailburuarentzat bidea ezarri duela esatera ausartuko ginateke."

Badoan Sailburuari buruz, zer esan genezake? Euskal curriculumaren garapena babestu al du? EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko eragileen elkarlana sustatu al du? Euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak gainditzeko legea egin al du? Nola jokatu du estatutik ezarri diren hezkuntza legeen eta dekretuen aurrean? Herri ikuspegia izan al du? Azken orduan, ia ezer egiteko aukerarik ez zegoenean, dekretu eta agindu ugari bidali ditu ikastetxeetara, de non harridura sortuz.

Anjelesek bide bat ezarri zuen. On-

dorengoak, ordea, ez du hura jarraitu bere legealdian. Alta, ez du alternatibarik aurkeztu eta noraezean ibili da.

Abesti ezagun batek hala dio: "Beti eskamak kentzen, kentzen, kentzen...". Guk egokitu eta zera esango genuke: "Beti aukerak galtzen, galtzen, galtzen...".

Isabel Celaa izendatu du Hezkuntza Sailburu gisa oraingo gobernu berriak. Burutu gabeko gai asko izango ditu garatzeko, eta agian, erabakitzeko. Besteen artean:

- Legeak ezartzen duen euskararen eta gaztelaniaren maila egokia lortzea. Orain arteko ereduaren politikak lortu ez duena nola aldatu legea bete dadin?

- Irakasle berriak etengabe aldatzen ari den jendarteari era egokian erantzuteko prestakuntza.

- Bete-bete sartuta gauden krisi ekonomikoan, nola lortu hezkuntzan inbertitzen den diruari ahalik eta etekin handiena ateratzea?

- Hezkuntza hobe dadin ezinbestekoa da ikastetxeen autonomia handitze-

ko neurriak hartzea. Autonomia horrek eragingo al du irakasleen egonkortasunean? Egonkortasun hori gabe zaila baita zentroko hezkuntza proiektua ongi garatzea eta hezkuntza benetan hobetzea.

- Hezkuntza Legea. 1993an Euskal Eskola Publikoaren legea egin bazen ere, hark marko zabalagoa eskatzen du, Hezkuntza legea deritzana.

- Hezkuntza esparruak herriaren eta herritarren garapenean hainbeste egiteko duenean, eskola komunitatea adostasunean kohesionatua izateak garrantzia izango du.

UNESCOK berriki gogoratu digunez, munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik 2.500 galtzear omen daude. Galtzear dauden horien artean euskara dago. Neurri zehatzak eta sakonak hartu behar dira horrela gerta ez dadin, Euskal Herriak bere ekarpena egiten jarraitu behar baitio munduko kultura aberastasunari.

Hezkuntza Saila berriari, ibilbide horretan, zorte on!

kronika

Isabel Celaa da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu berria. Kargua "arduraz" beteko duela eta oposizioan dauden alderdiekin "akordioak lortzeko borondatea" duela azaldu du Celaak. Fernando Buesa Hezkuntza sailburu izan zen garaian, sailburuorde izan zen Celaa eta Filosofian, Ingeles Filologian eta Zuzenbidean lizentziatua da. Sailburuordea Marian Ozcariz izango da, Marisol Esteban Hezkuntza Administrazioako sailburuorde lanetan arituko da, David Urzainki Lanbide Hezitako sailburuorde gisa arituko da, Pedro Luis Arias izango da Unibertsitate arloko sailburuordea eta Javier Nogales Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kabineteko zuzendari nagusia izango da.



Berria

Hiru urteko haurren herenek D ereduan ikasiko dute Nafarroan

2009-2010 ikasturterako Nafarroa Garaian Haur Hezkuntzan matrikulatu diren 6.573 haurretatik, 1.928k D ereduan ikasiko dute, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak emandako datuen arabera. Iazko datuekin alderatuta, % 3 egin du gora D ereduan aurrematrikulatu diren haurren kopuruak eta eskola publikoan aurrematrikulatu diren haurren % 35 pasatxok euskaraz ikasiko dute. Hala ere, Nestor Martinez Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko Nafarroako koordinatzaileak salatu duenez, nafarren % 40k ezin dute hezkuntza eredia "askatasunez" aukeratu. "Nafarroako hamaika bailara eta ingurutan, Artaxoan eta

Mendigorrían, esaterako, euskarazikasitahi nahi dutenei horretarako eskubidea ukatzen zaie", nabarmendu du Martinezek. Nafarroa Garaiko ikastetxeetan D eredia eskaintzeko garaia badela aldarrikatu du horrekin batera.

Bestalde, gogoroko mailetan, gauzak okertu egiten direla nabarmendu dute Erronkariko, Eunateko, Zaraitzuko eta Garraldako guraso elkarteek. Azaldu dutenez, Lanbide Heziketan dauden 164 ikasketetatik lau baino ezin dira egin euskaraz Nafarroan, eta gogor salatu dute egoera.

Bestalde, Martinezen hitzetan, ikasle euskaldunek beste arazo bat badute Nafarroan: "Inguru ez euskaldunean ikasten dutenek Iruñera etorri behar izaten dute, eta bertan dagoen masifikazioaren ondorioz, euskara ikastea, odisea bilakatzen da". Hori dela eta, Nafarroako Hezkuntza Departamentuari "beharrezkoak diren inbertsioak" egiteko eskatu diote beste behin ere Sortzen-Ikasbatuazetik.

Lehen irabazleak idazten zizun historia, orain irabazlearen ikuspegia bereganatu, eta galtzaileak berak idazten dio.

Joxe Azurmendi



Berria

Seaskak eta Frantziako Hezkuntza Nazionalak akordioa lortu dute

Seaskak eta Frantziako Hezkuntza ministerioak hiru urtetarako hitzarmena lortu dute, eta horren arabera, Frantziako Hezkuntza Nazionalak, datozen hiru urteetan 11 irakasle postu sortzeko konpromisoa hartu du. Akordioa aurrerapausoa dela esan du Seaskak, baina haiek egindako eskaera ugari ez ditu jasotzen. Besteak beste, azterketak euskaraz egin ahal izatea, eta egoitzak egiteko eta berritzeko laguntzak aztertea eskatzen zuten Iparraldeko Ikastolen Elkarteak.

Aurtengo Herri Urratseko leloak zioen modura, eta 40. urteurrenarekin bat egingez, Seaskak haizea alde duela

dirudi. Arrakastatsua izan zen maiatzaren 10ean Senperen egin zuten ikastolen festa eta bertan bildutako dirua Biddarteko ikastola egiteko eta Ortzaze-koa berritzeko erabiliko dute. Bien bitartean, urteurren festa ekainaren 14an egingo dute Kanbon, Errobi ikastolak antolatuta.

Ikas-Biren kezka eta gelan ardiak

Ikas-Bi elkarteak kezka agertu du datorren ikasturtean irakasle postuak galduko dituztela uste dutelako. Dena den, poza agertu dute 2009-2010 ikasturtean irakaskuntza elebiduna ikastetxe publikoen erdian eskainiko delako.

Heletako eskola publikoan, berriz, ikasleez gain ardiak izan zituzten joan den maiatzaren 7an. Frantziako Hezkuntzak irakasle lanpostu erdia kendu nahi dio Heletako eskolari eta gurasoek eskola okupatu zuten, ardi eta guzti. Paperezko ardiak egin zituzten, eskola itxi eta "pentze" bilakatzeko duten asmoa irudikatzeko.

Hezkuntzan jarraipen zabala izan zuen joan den maiatzaren 21eko greba orokorrak, baina datu zehatzik ez da, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ezarritako gutxieneko zerbitzuen ondorioz ikastetxe askok ezin izan zutelako itxi. ELA, LAB, EILAS, ESK, Hiru eta EHNE sindikatuen ustez "gehiegizkoak eta greba eskubidearen aurkakoak" izan ziren gutxieneko zerbitzu horiek. Sindikatuek salatu zuten, "inoizko atzerakoenak" izan ziren ezarritako gutxieneko zerbitzuak, eta helegitea jarri zuten, bai Euskal Autonomi Erkidegoan eta baita Nafarroan ere, onartu ez zituzten arren. Jaurlaritzak finkatu zuenez, gutxienez zuzendaritza taldeko pertsona batek eta administrari laguntzaile batek egon behar zuten ikastetxe bakoitzean eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, lau gelako irakasle batek egon behar zuten, gutxienez. Haur eskolen kasuan, langileen % 25 bermatu behar zen. Nafarroan, berriz, ikastetxeetako eta lantokietako garraioa erabat bermatzeko baldintza jarri zuen Nafarroako Gobernuak.

GAIA

Herrietako kultur ondarea

Herritartasuna sustatzen





Gero eta globalizatuago dagoen mundu honetan, askotan urrun dugunaren gaineko informazio asko jasotzen dugu, eta etxekoa ez dugu ezagutu ere egiten. Egoera hori gainditzeko, Euskal Herriko hainbat herritan, herri ondarearen gaineko proiektuak egiteko beharra ikusi dute udalek.

Gaiak kezka eta interesa sortu du, eta esparru hori lantzeko hainbat ekimen garatzen ari dira. Besteen artean, *Hik hasi* ere ari da herri batzuetan ondare kulturala berreskuratzeko proposamen lanak egiten.

G

Herrietako kultur ondarearen transmisioa

Geure herriari buruz informazio handirik ez dugu izaten sarritan, eta, badugunean, batzuetan informazio hori ez da belaunaldi batetik bestera pasatzen, transmisio arazoengatik. Jendearen mugikortasunak, oro har, asko murriztu du transmisioa, jende asko joaten baita bizitzera berea ez den herri batera. Geure ikastetxeetan, gainera, irakaslearen mugikortasunaren ondorioz, maiz izaten dira herrikoak ez diren irakasleak, eta horiek ez dute beti herria ezagutzen. Eten hori gainditzeko beharra ikusita egin dira lan hauek. Euskal curriculum gertutik eraikitzen hasi behar da, eta, ikaslearen interesa pizteko, beharrezkoa da gertukoak zaizkien gauzetatik abiatzea, ezagutzen duten horretatik abiatzeko motibazioa areagotzen baitu. Unitate didaktikoak egin dira, beste hainbat gauzaren artean, eta, horien bidez, ikasleak herrira gerturatzeke ahalegina egin nahi da, herria hobeto ezagut dezaten.

Hik hasi dagokionez, Villabona-Amasa, Hondarribia eta Errenteriko udaletxeek izan dute interesa proiektu horretan, baina lana aurreratuen Errenterian dago. Prozesua bera izan da herri guztietan:

Lehenik, herri horietan jasota edo landuta dagoen informazioaren azterketa egin da. Horretarako, toponimia lanak, herriko hizkerari buruzko lanak, irudi zaharrak eta historia liburuak, ipuinak, kantak, lanbide zaharrak, isto-

rioak, kontakizunak... aztertu dira. Herriaren ezagutzan gakoa izan daitezkeen pertsonak identifikatu dira, eta horiei elkarrizketak egin zaizkie.

Herriko eragileak kontuan hartuta, ikuspegi orokorra izango duen proiektua osatzea izan da asmoa, eta heziketa ziklo guztiak eta adin tarte guztiak hartu dira kontuan.

Informazio guztia jaso eta landu ostean, emaitzak askotarikoak izan daitezke: unitate didaktikoak, irteerak eta ibilaldiak egiteko proposamenak, herri hizkerari buruzko webgunea edo CDa, toponimiari buruzko webgunea edo CDa, jolasak, ipuinak, komikiak, mapak...

Hezkuntza arloko ildo nagusiak

Dibulgazioa izango da lehen helburuetako bat, herrian egiten diren lanak jendartearen zabaltzea, hain zuzen ere. Hizkuntzaren eta kulturaren jabetza bermatzea ere helburu nagusien artean kokatu da, gaitasunak lantzeari garrantzi berezia emango zaio, eta, ezagutzak eskuratzeko, eguneroko bizitzari lotutako gaiak landuko dira, eta bizitzarako baliagarri diren elementuak indartuko. Izan ere, gertuko ezagutzak erabiliz interesa eta motibazioa piztea interesgarria eta beharrezkoa da, eta, horrela, herritarren komunitate sentimendua indartuko da. Horretarako, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten tresnak baliatzea interesgarria da.



Herria ezagutzen egitasmoa

Herria ezagutzen egitasmoa

Bizi garen herria hobeto ezagutzeko ahalegina

Errenteriako Udaletik abiatu zen ideia 2007an. Udalak, herriko toponimia jasoa zuen eta, askotan egiten den moduan, liburukote bat argitaratzea, ez zitzaion informazioa jendarteratzeko modurik egokiena iruditzen. Hala, *lametza* enpresara jo zuen ea herritarrak horretaz jabetzeko zer egin zitekeen galdetuz. *lametzak*, bere aldetik, guregana jo zuen gauza bera itaunduz.

Hik Hasik hausnarketa egin zuen, eta hezkuntzaren egoera ikusita, gaiari heldzea erabaki zuen.

Zergatik murgildu zen Hik Hasi halako egitasmo batean?

- Europatik zetozen "gaitasun" edo "konpetentzia" irizpideak nagusitzen ari zirelako.

- Euskal Curriculumaren eztabaida mahai gainean zegoelako.

- Estatuko curriculumak zehazten ari ziren, eta bakoitzak bere estatuan ezarriko zuelako.

- Herritarren, ikasleen eta irakasleen mugikortasun handia dagoelako ikastetxe eta herri bakoitzean.

- Oinarrizko konpetentziak lantzeko gertuko baliabideekin aritzeak lana errazten duelako. Oso motibagarri baita eskura dituzun baliabideekin, egunero bizi duzun espazio eta gertaerekin, eta, bizitzari lotuta dauden gauzeekin aritzea.

- ...

Horregatik, Udalak jasota zuen toponimia aitzaki hartuta, "Herriko Ondare Kulturala" jendarteratzea planteatu genuen. Oinarrizko proposamen integrala egitea eta bitarteko egokiak sortuz jendartean zabaltzea jarri zen helburu nagusitzat.

Izan ere, herri askotan herriari buruzko hainbat lan bultzatu izan dira Udaletatik zein bestelako elkarteetatik; historia, toponimia, hizkuntza, etnografia eta bestelako gaiak jorratzeko ikerketa lan sakonak egin dira. Kasu askotan, gainera, argitalpen bat izan da lan horien emaitza.

Oraingoan, herrian jasotako edukiak jendarteratzeko asmo sendoa agertu du Errenteriako Udalak eta planteatzen den proiektuaren bitartez, bereziki, toponimia eta herriko kultur ondarea zabaltzeko lanak bultzatu nahi dira.

Herria ezagutzen

"Herria ezagutzen" deitu den egitasmoarekin bultzatu nahi diren helburu nagusiak hauek dira:

- Herritar izatearen kontzientzia indartzea.

- Euskal kultura eta euskararen normalizazioa bultzatzea.

- Gazteen artean herriko kontuak eta informazioak zabaltzea.

- Ikastetxeekin trebakuntza eta zabalakunde lantzea.

- Integrazioa erraztea.

- Edukiak antolatzea, aukeratzea,



lantzea eta zabaltzea.

- Herritarrengan herriarekiko, bere historiarekiko eta bizitzarekiko jakinmina sortzea.

Egitasmoa garatzeko faseak

Bi dira aurreikusten diren faseak:

1. Diagnostia

Hori egiteko, ahalik eta informazio zabalena jasotzea komeni da.

a) Herrian edo herriari buruz, jada, jasota dagoen informazioa aztertzen da: liburuak, mapak, entziklopediak, CDak, DVDak, argazkiak, web guneak...

b) Herriko pertsona gakoekin elkarriketak egiten dira: kultur arloan ari direnak, hezitzaileak, udaleko teknikariak, geroko erabiltzaile posibleak...

2. Eskaintza

Ahalik eta esparru zabalena hartuko du eskaintzak. Etekinik handiena aterako dioten arloei lehentasuna emango zaielarik: ikastetxeak, euskaltegiak, aisialdia, turismo bulegoak, herritar ororentzat interesgarriak izango direnak...



Egitasmo parte-hartzailea

Sortuko den materialaren erabiltzaileak herritarrek izan behar badute, ez al da logikoa herritarrengana jotzea egitasmoa garatzeko garaian prozesu osoa partekatuz? Hori izan da hasieratik zaindu nahi izan den praktika.

Horregatik, herritarren partaidetza bi planotan sustatzen ari da:

1. Egitasmoa garatzeko fasean.

Informazioa lortzeko, beharrak aztertzeko, ideiak kontrastatzeko, emaitzak sortzeko proposamenak jasotzeko...

2. Sortuko diren produktuak erabiltzeko fasean. Emaitzetan edo produktuen elaborazioan parte hartzen bada, erabilera erraztuko da eta interaktibitatea eta talde lana sustatzeko aukera handituko da, hasieratik funtzionaltasuna edo erabilgarritasuna bilatuko baita.

Horregatik, materialaren egileen eta eragileen partaidetza ezinbesteko iruditzen zaigu. Bereziki, ondorengo profilak zaindu dira:

- Herrian kultura gaietan interesa agertu duten eta nabarmendu diren pertsonak.

- Azterlanen eta argitalpenen egile-

ak eta arduradunak.

- Aisialdi taldeetako arduradunak.
- Udal teknikariak eta arduradunak.
- Ikastetxeetako arduradunak, bereziki, hizkuntza normalizatzaileak, materiala erabiliko den mailakoak eta zuzendariak.

Horrela, bada, parte-hartzea ez da edukiak sortzeko unera mugatuko. Egitasmoa abian jartzeko hainbat eragilarekin hitz egiteaz gain, edukien eta produktu zehatzen erabiltzaileen parte-hartzea gauzatuko da. Hau da, emaitzetan (web guneak, unitate didaktikoak, CDak eta abar) interaktibitatea ezinbesteko ezaugarria izango da.

Adibide gisa, honako alderdiak gara daitezke partaidetza bultzatzeko:

- Web gune arlo zehatzetan herritarrek informazioa jartzea.
- Hainbat ariketa lantzea: leku-izenen jatorria interpretatzea (Gaztelutxo, Pontikaerrotta, Itzieta, Beraun eta abar).
- Ba al zenekien? bezalako galdereetan eztabaida sortzea.
- Edukien sorkuntzan, garatzen diren edukien osagarri:
 - Ipuinen bilketa: ikasle bazkoitzari bere gurasoen herrietako ipuin edo gertakizunen bat eskuratzeko eskatzea (kultur aniztasuna lantzeko).
 - Lanbide zaharretan: gurasoei edo aitona-amoei galdetzea.
 - "Nire auzoko leku bat" bezalako lanak egitea.
 - Altxorraren bila: joko interaktiboak eta fisikoa herrian barna lantzea.
- Materialak sortzean erabiltzaile

potentzialean kontrastatzea. Unitate didaktikoak sortzeko garaian, adibidez.

- Kanta CDtan edo bestelako ikusizunetan parte hartzea.

Teknologia berrien erabilera sustatzen

Proiektuak dituen helburuak lortzeko teknologien erabilera gako garantzitsua izango da. Ez da bide bakarra izango, noski, baina nabarmenki bultzatzen da teknologia berrien erabilera, herritarren arteko zabalkundea errazteko eta indartzeko.

Bereziki, web gune interaktiboak landuko dira, eduki grafiko eta bisualak, mapak, ibilbideak, materialak zintzilikatuko dira eta abar. Bestalde, CD edo DVD euskarriak ere oso mesedegarriak dira zabalkundean. Askotan, eduki digitalak ekintza fisikoen osagarri eta laguntzaile izango dira.

Hartzaileek dituzten baliabideak kontuan hartuta teknologia berrien erabilera indartu nahi da:

- Ikastetxeetako informatika euskarriak.
- Euskaltegiakoak eta elkartekoak.
- Etxeetako ordenagailuak.
- Turismo bulegoko ordenagailua, KZ gunea.
- Udalaren web gunea.
- Cicerone sistema (informazio telefonoak...).
- ...

Web bertsioan herritarren iritziak eta iruzkinak jasotzeko aukerak garatzearen aldekoak gara. Modu horretan, zuzenketak eta datu berriak jasoko liriteke, web gunearen edukien kalitatea hobetuz. Aukera bereziak jar daitezke aisialdian, kirol elkarten eta ikastetxeen eskuetan, albisteak eta agendako ekitaldiak sartzeko.

Egitasmoa garatzean

Pertsona gakoak
Eragileak: ikastetxeak, aisialdi taldeak, euskaltegiak, turismo bulegoa, udala...

Emaitzak jendarteratzean

Erabiltzaileak: ikasleak, herritarrak...
Eragileak: hezitzaileak, irakasleak, begiraleak, gidak, kultur taldeetako kideak...

Herria ezagutzen, diagnosis

Hiru herrietako diagnosis

Hiru herri landu ditugu. Koadroan ikus daitekeenez, bat handia da (Errenteria), bestea ertaina (Hondarribia) eta hirugarrena txikiagoa (Villabona-Amasa).

Lehen helburua, herri bakoitzean ondare kulturalaren gaineko diagnosis egitea izan da. Horretarako, herri horretan jasota dagoena ezagutu egin behar da, edozein euskarritan jasota dagoelarik ere. Eta, aldi berean, kulturako edozein arlotan ari diren herriko pertsona gakoekin hitz egin behar da, haien ustez, zer egin beharko litzatekeen jasotzeko.

Horiek dira diagnosis egiteko erabili diren bi bide osagarriak.

Jasoketa lana

Oso desberdina da herri bakoitzak egin duen kultur ondarearen jasoketa lana.

Inoiz bukatzen ez den egitekoa bada ere, Hondarribian eta Errenterian lan ugari dago jasoa, jada. Bi herri horietako liburutegiek eta artxibategiek informazio ugari dute herriko kulturako hainbat arlori buruz. Bi liburutegi horietan, herriari eskainitako espazio berezia dute: liburuak, entziklopediak, mapak, ibilbideak, argazkien bildumak, bideoak, musika eta ipuin-zintak... Horrek guztiak, asko laguntzen du herriari buruz zer ezagutzen den eta zer falta den identifikatzeko.

	ERRETERIA	HONDARRIBIA	VILLABONA-AMASA
AZALERA (KM)	31,9	28,8	17,7
DENTSITATEA	1.187,2	553,5	324,6
BIZTANLEAK	38.224	15.044	5.672
EMAKUMEAK	19.501	7.505	2.866
GIZONEZKOAK	18.723	7.539	2.866
0-19 URTE	5.923	2.838	1.123
20-59 URTE	23.920	9.304	3.535
60+ URTE	8.381	2.902	1.014
ZAHARTZE INDIZEA	141,5	102,3	90,3
OKUPATUAK	17.242	6.875	2.469
1. SEKTOREA	184	523	31
INDUSTRIA	6.467	1.795	1.205
ZERBITZUAK	10.591	4.558	1.233
HIZTUNAK 2 urte +	37.261	14.632	5.482
EUSKALDUNAK	12.096	8.858	3.698
IA EUSKALDUNAK	7.701	2.707	933
ERDALDUNAK	17.464	3.067	851
FAMILIA ETXEBIZITZAK	15.597	8.023	2.380
ETXEBIZITZA NAGUSIAK	14.084	5.613	1.866
HUTSAK+BIGARRENAK	1.513	2.410	514
ALOKAIRUAN	880	596	156

Iturria: Euskal Herria datuen talaiatik 2006. Gaindegia.

Euskararen gorabeherak

Gure ustez, landutako hiru herrien kultur ondare nagusia euskara da.

Hondarribian bertan hiru hizkera izan dira: kaletarrena, baserritarrena eta arrantzaleena. Errenterian, aldiz, bi euskalki mota erabili izan dira: gipuzkera eta nafarrera, bizitokiaren kokapenaren arabera.

Guztietan, euskararen ezagutza duten herritarren kopurua goraka bada ere, erabilerak kezka sortzen du. Erabilera normalizatzeko bideak aurkitu behar dira euskara modu naturalean erabil dadin.

Toponimia

Toponimia lanak eginak dauden herrietan, horiek nola zabaldu eta jendarteratu sortzen du kezka. Jasoketa lanari etekina atera nahi bazaio, herritarrengana modu errazean iristeko bideak aurkitu behar dira, bestela, gutxi batzuentzako ondare gisa erabiltzeko arriskua baitago.

Herrikoa sentitzen lagundu

Herrian eskaintzen diren kultur proposamenak aztertu behar dira, herritarrei bertakoak sentiarazten laguntzen dieten edo ez jakiteko. Bertako



ohiturak, kantak, jaiak, istorioak, kontakizunak, esaerak, gertaerak, historia, hizkera, auzoak, etxeak...

Horietan guztietan, herriko ekin-tzetan parte hartzeak asko laguntzen du bertakoagoa sentitzen. Herriarren arteko errespetuak eta haien arteko harreman fisikoak, hizkuntzazkoak eta afektiboak oso lagungarriak dira egiteko horretan.

Informazio eta komunikazio teknologia dinamikoak eta interaktiboak

Herri gehienek badute beren web gunea. Garrantzitsua da zer erabilera ematen zaion. Herriar askok badu, jada, ordenagailua etxean eta internetera konektatuta dago. Herriko Web gune horrek, irekia, bizia, dinamikoa eta informatzeaz gain, parte hartzeri gonbidatzen duena izan beharko luke. Horrek, asko lagun lezake herriarren kohesioan.

Proposamen orokorrak

Proposamen ugari izan daitezkeen, lehentasunak eta euskarriak zehaztean, ikuspegi integrala eta ahalik eta herriar gehieni eragingo dienetik abiatzea komeni da.

Hiru herri horietan egin diren pro-

posamen batzuk honakoak lirake:

Bilketa lana: toponimia, euskalkia, adinekoen testigantzak eta abar.

Gordetzeko lana: liburutegian leku zehatz bat egon beharko luke herriari buruzko informazio guztia elkarrekin gordetzeko, euskarria edozein delarik ere.

Bestalde, herriarrek dituzten herriari buruzko objektuak (argazkiak, liburuak, idatziak, etnografia eta abar) biltzeko leku bat egotea.

**Euskararen ezagutzaren eta erabilera-
ren sustapena eta hizkeren berreskurapena:** plangintza orokorra osatu beharko litzake euskararen erabilera sustatzeko eta herrian bereizgarri diren hizkerak bildu eta berreskuratzeko, gal ez daitezzen.

Herri kohesioa: herriarren arteko eta elkartearen arteko ezagutza bultzatu beharko litzateke, denak herrigintzan ari direnez, eta horrekin batera, auzolana. Gainera, herriarekiko interesa, eta ondorioz, jakin-mina eta atxikimendua indartuko lirakeke.

Bide batez, hori, herriaren gaineko lanen sustapena egiteko sareak sortzeko modua izan liteke.

Proposamen zehatzagoak

- Erabilerari loturik, eta eskoletan erabilera indartzeko, plangintza zehatza egin daiteke: eskolan, kalean, aisan... Jolas-garaietan euskaraz jolasteko jarduerak antola daitezke eta gero eskolen arteko olinpiadak egin. Udalak bultzatutako programa markoen bidez bidera daiteke.

- Prest dauden pertsonak prestatu eskoletan, euskaltegian, liburutegian eta abar, bertako hizkeran dakizkitenak kontatzeko. Udaleko programa baten bidez egin liteke.

- Adineko jendearen testigantzak

ikus-entzunekeotan bildu: euskara, istorioak, kontakizunak, ohiturak eta abar.

- Bilketa etnografikoa egin beharko litzateke.

- Kanta zaharrak, ohiturak, festak, kontuak, istorioak eta abar bildu beharko lirakeke.

- Baserritarren, arrantzaleen eta kaletarren ogibideak eta bizimodua bildu beharko lirakeke.

- Oinetxeak, pertsonaia interesgarriak.

- Bilduta dagoen ondarea zabaltzeko eta ezagutarazteko unitate didaktikoak.

- Aldeko giroa sortu herrian irakasleak motibatuzko eta prestatuzko, herria ezagutzeko eta ezagutarazteko, ilusiozko. Herriarekiko sentiberatasuna izatea lortu beharko litzateke, sentiberatasuna transmititzeko.

- Mapa interaktiboa: toponimia, lekuak, eraikuntzak, gertaerak eta abar jasoko dituena.

- Azalpen txartelak ipini eraikinetan, kaleetan, leku esanguratsuetan eta abar.

- Eraikuntza historikoekin erlazionatuko dituzten kontakizunak, ipuinak...

- LHko 3. zikloan (10-12 urte) irakatsi fandangoa eta arin-arina, valsa, eta agurra udaleko programa markoaren barruan.

- Herriko historia komiki gisa, modu errazean jaso.

- Herriko ondare kulturala jasoko duen DVD asortu. Bertako jendea egina eta bertako ohiturak, jaiak, kantak, dantzak, gertaera historikoak, oinetxeak, natura, lanbideak eta abar jasoz.

- Urtero, herriko ahalik eta talde eta jende gehien bilduko duen ikuskizuna egin.

Herria ezagutzen, eskaintza

Herria ezagutzen, Erretereria

Herri horretan, lehen fasea osatu ondoren, Udalak bigarren fasera pasatzea erabaki zuen. Lehen fasearen amaieran, hainbat proposamen luzatu zitzaizkion Udalari bilduta zuen ondare kulturalaren gaineko transmisioa egin ahal izateko.

Eskainitako proposamenetik sortu nahi zituzten euskarriak eta epeak adostu ondoren, lanaren lehen zatia ekin zitzaion, hustuketa lanari, hain zuzen ere.

Hustuketa lana

Hustuketa lanean, Udal liburategian zeuden liburuetako eta beste hainbat lekuetan herriaren ondareari buruz ari ziren liburuetako eta bestelako dokumentazio iturrietako informazioa hustu zen.

Hustuketa lanetik lortutako informazioa gaika sailkatu zen: historia, kultura, bitxikeriak, pertsonaiak, industria, baserria... izan ziren, besteak beste, hustuketan lortutako materiala atontzeko atalak.

Gainera, euskarri bakoitzerako baliagarria zen materiala bereiztuz joan zen, aldi berean.

Azkenik, hustuketa egindakoan, lortutako informazio guztia atalka biltzen zuen hustuketa txostena osatu zen. Bertan, informazio bakoitza bere iturriarekin eta erreferentziarekin jaso zen.

Hustuketa txostena gainerako lan guztietarako, eta sortu beharreko euskarri guztietarako datu basea da, horre-



tan oinarrituta burutu baitira hurrengo urratsean egin diren eta egingo diren euskarriak.

Toponimia web gunea

Esan dugu Udalak toponimia lana burutua zuela. Lan hori ezagutzera emateko eta herritarren artean zabalteko sarean atari bat jartzea aukeratu da.

Horretarako, TOPONIMIA WEB GUNEA izeneko orria sortu da. Han, adituek egindako toponimia lana aurki eta kontsulta liteke; ikerketak jasotako leku izen bakoitza haren erreferentzia eta aipamenekin, alegia.

Bildutako leku izen horiekin osatutako toponimia mapa ere, orri horretan dago eskuragai.

Toponimia lanaren ohiko atal horiez gain, orriak baditu beste hainbat atal leku izenak eta horien ingurukoak errazago zabaltze aldera, hala nola:

BA AL ZENEKIEN? Atal horretan, hainbat leku izenei dagozkien fitxak eskaintzen dira. Fitxa horietan, leku horri buruz, edo leku horrekin zerikusia duen informazioa eskaintzen da, hustuketa txostenean jatorria duena, argazki batez lagundurik.

EZETZ ASMATU! Atal horretan, berri, hiru balizko erantzun duten hainbat galdera aurkezten dira, toponimian jasotako izenen (terminoen) ingurukoak. Galdera bakoitzak ere bere argazkia du.

ARGAZKIAK. Atal horretan, herriko hainbat argazki zahar eskaintzen dira.

Halaber, egitasmo guztiak duen ezaugarri eta helburu partehartzaileari jarraiki, jendeak aukera du aurkeztutako fitxetako informazioa zabaltzeko, zehazteko edo zuzentzeko. Aukera dago ere norberak bere argazkiak zintzilikatzeko.



Herria ezagutzen unitate didaktikoak

Herriko ondare kulturala eta toponimia lantzeko sei unitate didaktiko prestatzen ari dira. Unitate horiek Lehen Hezkuntzako ikasleak izango dituzte hartzaile gisa, eta Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzerako unitate bat proposatzen da.

Hala ere, unitatearen erabileraren eskaintza malgua da, eta ikastetxe bakoitzaren esku geratu da haien erabileraren banaketa.

Unitate bakoitzak, herriko ondarearekin lotutako hainbat kontzeptu eskaintzeaz gain, herriko pertsonaia bat lantzen du eta bitxikeria bat, kontaktuzun edo ipuin bat, abesti bat, bertso bat, ohitura bat eta abar.

Haitetan, gainera, unitatean proposatzen den gaiarekin lotura duen ibilbidea proposatzen du, koadernoetan ibilbidearen mapa eskaintzen duelarik.

Era berean, Hezitzailearentzako GIDA osatuko da. Horrek, unitatean proposatutako jarduera bakoitzaren azalpenak eskaintzen ditu eta baita beste hainbat jarduera ere, hezitzaileak egin nahi baditu lagungarri izan ditzan.

Komenigarria ikusi den kasuetan, gaiari buruzko informazioa eskainiko da ere gida horretan.

Lehen unitatearen zirriborroa egin zenean, ikastetxeekin bilera bat egin zen eta unitatea, gida eta ibilbidea aurkeztu zitzaizkien. Unitatea egiterakoan hartu behar izan ziren hainbat erabakiren gaineko informazioa eskaini zen ere; letra tipoaren erabilera, adibidez. Ondoren, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak bere kideei aurkeztu zien unitatea eta ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izan zuten.

Horiek denak bildu eta behin beti-

ko unitatearen koaderno osatuko da.

Unitatea osatzeko behar diren ilustrazio lanak, argazkiak, testuak eta abar, herriko jendeari eskaini zaizkio eta herritarrek egingo dituzte ahal den heinean.

Herria ezagutzen web gunea

Web gune hori, aurreko ataria aberastera etorriko da. Aurrekoak jasotzen zuen toponimiaz gain, orri horrek ondarearekin lotutako beste hainbat informazio eskainiko ditu zenbait ataletan.

Bestalde, orri horrek jasoko ditu ere aurrerago aipatu ditugun unitate didaktikoak eta Hezitzaileentzako Gida, baita ibilbide pedagogikoak eta mapa bisual interaktiboa ere.

Aurrera begira

Oraingoz horiek dira sortu ditugun eta sortzen ari garen produktuak. Aurrera begira, Udalarekin egindako hitzarmen berri batean, herrian zehar informazio panelak jarriko dira ondarearekin lotura duten hainbat puntuetan.

Gainera, Haur Hezkuntzako ikasleentzat herrian kokatutako eta herriko pertsonaiekin osatutako ipuinak sortuko dira, DBHko ikasleentzat, eta helduentzat oro har, herriko historia jasoko duen komikia egitea aurreikusiko da.

Aurrerantzean, Udalarekin adostuz joango gara herriko ondare kulturala ikasleen eta herritarren artean ezagutarazteko beste hainbat bitarteko eta euskarri. Beti ere, helburua, herritarrek herriko ondare ezagutu eta partehartzailerik izatea delarik.

Etorkizunak esango du noraino garatuko den *Hik Hasi* eta Errenteriako Udalak Errenteriako ondare kulturala herritarren artean ezagutarazteko egitasmoa.



elena cano

ELKARRIZKETA

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea. Ebaluazioan aditua.

// Har dezagun ebaluazioa ikasteko aukera gisa //



elena
cano

E

// Batzuetan, ebaluazioa denbora-galera gisa hartzen da, baina ebaluazioa ikasteko jarduera gisa hartzen badugu, ez gara denbora galtzen ari, irabazten baizik. Ebaluazio tresna, jaso nahi dugun horretara egokitu behar dugu, eta prozedurak doitu egin behar ditugu ebaluazioaren bideragarritasuna bermatzeko.

//

Elena Cano Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea da, Didaktika-ko eta Hezkuntza Antolaketako Departamentuan aritzen da, eta ebaluazioan aditua da. Gaitasunetan oinarritutako diseinuak ebaluazioaren ikuspegia aldatzera behartzen gaitu, nolabait, eta Canok dio ezin dugula ebaluazioa bakartutako zerbait balitz bezala ikusi, diseinuari, metodologiari edota edukiei lotuta dagoen zerbait baita. Era berean, ebaluazioa ikasteko aukeragisa, hobetzeko tresna gisa, hartzeko beharra azpimarratzen du. Konpetentzietan oinarritutako ikuspegia, begirada aldaketa da, agian, ez da ezer berria, eskolan beti trebatu baitira pertsona konpetenteak. Bestalde, argi utzi du pertsonak ez direla betiko, leku guztietan eta une guztietan edo zertarako gai, gaitasunak, bizitzak aurrera egin ahala, eguneratzen doazelako. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatutako XVI. Jardunaldi Pedagogikoetan parte hartu zuen Elena Canok, eta orduan izan genuen harekin egoteko aukera.



Gaitasunetan oinarritutako diseinuak ebaluazioa aldatzeko beharra dakar. Zer egin dezakegu ebaluazioaz dugun ikuspegia aldatzeko?

Askotan, ebaluazioa kalifikazioari lotu diogu, eta kalifikazioa ebaluazioaren funtzioetako bat izan daiteke, baina ebaluazioak kalifikazioa gainditu egiten du. Gaitasunak ez dira kalifikatu behar, ezinbestean. Ez gaude behartuta “zu gai zara, 4,5” eta “zu ere bai, 4,6” esatera. Hor badugu abantaila bat. Ebaluazioa garrantzitsua den informazioaren bilketa gisa ikusten saiatu behar dugu. Jar dezagun begirada pertsonaren garapenaren gaineko arrastoak ematen dizkigun horretan eta informazio horren balioespenean, ikasleak jakin dezan zein diren haren indarguneak eta ahulguneak, eta nola hobe ditzakeen etorkizunean. Pertsona batzuek, ebaluazioaren kultura aldatzeko, deklinabide atzizkia aldatzea nahikoa dela diote, eta ikaskuntzaREN ebaluaziotik ikaskuntzaRAKO ebaluaziora pasatu behar dugula. Orain arte, ebaluazioa, ziurtatze eta hautatze funtzioa duen zerbaiten gisa ikusi dugu, hobetzeko aukera gisa baino gehiago.

Beraz, ikaskuntza prozesuak ebaluatu behar dira, ez soilik azken emaitza.

Bai. Gainera, batzuetan, pertsonak epaitu ditugu, ez ikaskuntza prozesuak, eta horrek ere mugak jartzen dizkie ebaluazio prozesuei. Ikasle baten lana ebaluatzen badugu, ez dugu esan behar ikasle hori zikina denik, lana zikina dela baizik. Ez diogu pertsonari etiketik jarri behar. Denbora tarte jakin batean izan den aurrerapenaren balio-

espena egiten dugu. Baina ez da pertsona epaitzen, inoiz ez, baizik eta ikas-kuntza prozesua.

Eta bide horretan, garrantzitsua izango al litzateke ebaluazio irizpideak zehaztea?

Nahiko arrunta da lan bat zer irizpideren arabera balioetsiko den ez jakitea. Aldaketa garrantzitsua izango litzateke ebaluazio irizpideak zehaztea, jende guztiak ezagut ditzan eta kolektiboak izan daitezten. Gaitasunen ebaluazioa irakasleek egiten dituzten ebaluazioen baturatik haratago doa. Eskola, proiektu gisa, guztion artean programatu behar dugun zerbait da, eta, zentzu horretan, irizpide batzuk adostu beharko ditugu irakasleen artean, eta, duten adinaren arabera, baita ikasleekin ere. Pertsona batek lan baten ebaluazio irizpideak zehazten baditu, irizpide horiek bere egingo ditu ziurrenik, eta horien arabera lana egingo du. Ebaluazioak ditugun helburuei jarraitzen badie eta landu nahi ditugun gaitasun edo edukiekin koherentea bada, ziur aski prozesua ona izango da. Gutxieneko koherentzia badagoela ziurtatu behar dugu, eta, horretarako, ebaluazioa, curriculumeko gainerako elementuak planifikatzen ditugunean planifikatu behar da.

Metodologia eta planifikazioa ere aldatu behar dira.

Bai. Ebaluazioak koherentea izan behar du erabiltzen den metodologia-rekin. Nik ez dut ulertzen pertsona batek ahozko azterketa bat egitea, ikasge-lan ikasleei ahoz adierazteko aukerarik eman ez badie. Eta, ikasleak iritzi kritikoak ematen badakien ebaluatu nahi badut, ezin dut test erako proba bat eginda jakin. Ebaluazio tresnen, metodologiaren eta helburuen artean koherentzia egon behar du. Guztiak jarraipena du, eta koherentzia hori bermatzeko dena batera planifikatu behar da. Gaitasunetan oinarrituta lan egiten baduzu, hainbat ezagutza eremutan landu daitezkeen eta ezagutzaren integrazioa eta aplikazioa ahalbidetuko duten

aukerak, jarduerak eta lanak bilatzen dituzu. Ebaluazioak metodologia berriekin zerikusia du.

Batzuetan, ebaluazioa bidegabea dela pentsatzen da. Zer egin dezakegu ikuspegi hori aldatzeko?

Ikaslearen konpetentzien edo gaitasunen gaineke ikuspegi osoagoa emango liguketuen ebidentziak eta askotariko tresnak izan beharko genituzke. Gaitasunen ebaluazioak aniztasun handiagoko tresnak izatea eskatzen du, ezinbestean. Uste dut proba idatziek dagokien funtzioa betetzen dutela, hainbat maila ebalua ditzaketela, baina egia da badaudela proba idatziekin sekula ebaluatu ezingo diren gaitasunak. Uste dut tresna, toki eta eragile anitz izatea interesgarria dela. Ebaluazioaren kulturaren aldaketa da. Ebaluazioak ikasgaiak gainditzeko balio behar duela, ikaskuntza batzuk frogatzeko balio behar duela edota hautatze funtzio hori izateko balio behar duela ikusten badugu, ikasleei hori helarazi-

ko diegu, eta, era horretan, badirudi gainditzeko mekanismoa dela, ez ikas-teko mekanismoa. Har dezagun ebaluazioa ikasteko aukera gisa. Beraz, gaitasunen ebaluazioa egiteko lehen-dabiziko gauza, ebaluazioa hobetzeko tresna gisa ikustea da. Batzuetan, ebaluazioa denbora-galera gisa hartzen da, baina ebaluazioa ikasteko jarduerak gisa hartzen badugu, ez gara denbora galtzen ari, irabazten baizik. Ebaluazio tresna, jaso nahi dugun horretara egokitu behar dugu, eta prozedurak doitu egin behar ditugu ebaluazioaren bidegarritasuna bermatzeko.

Ezagutzak ebaluatzea erraz samarra da, baina nola ebalua ditzakegu gaitasunak?

Gure lana oinarritzko gaitasunetan oinarritu behar dugu. Kontua ez dazatikutako ezagutzak pilatzea, etorkizuneko herritarrentzat beharrezkoak izango diren gaitasun eta soslaietan pentsatzea baizik. Eta horrek jakitera, egiten jakitera eta izatera garamatza.



elena
cano



E

// Batzuetan, irakasleok oso era itxian galdetzen dugu, ez dugu aukera berriak sortzeko betarik ematen, aurrez eskainitako aukeren artean hautatu egin behar da, eta, batzuetan, lanek ez dute sormenerako edo integraziorako aukera handirik ematen. Integrazioa eta ezagutza horien aplikazioa ahalbidetuko duten ebaluazio proposamenak pentsatu behar ditugu.

//

Hor, osagai garrantzitsua topatzen dugu: jarrerazkoa. Gaitasun batzuek kontzeptuzko osagaia dute batez ere, eta beste batzuek jarrerazkoa. Edozein kasutan, ikasle batek asko jakin dezake gai bati buruz kompetentea izan gabe. Baina, ezin duzu kompetente izan ez badakizu. Gaitasunaren atzean ezagutza dago. Geure buruari galdetu behar diogu zer ezagutza mota den ezinbestekoa.

Bestalde, gaitasunetan oinarritutako ikuspegiak lanen ebazpenerako hainbat aukera aurreikusten dituzte. Ez dago lanak ebazteko era bakarra, hainbat era daude, eta bakoitzak, agian, mekanismo eta baliabide ezberdinekin lor dezake hori. Dagoen testuinguruan arazoa konpontzen badu, gaitasuna duen pertsona da.

Azkenik, horrek guztiak antolaketa berri batera garamatza, egiturei dagokienez, espazioei dagokienez, lan kolektiboari dagokionez, irakasleen rolari dagokionez... Planifikazio handiago eskatzen digu, curriculumaren egitura berrikustera garamatza eta, jakina, curriculumaren aldaketara garamatza.

Curriculumaren aldaketara.

Bai. Curriculumaren aldaketak zer eduki hautatuko ditugun pentsarazi behar digu, eta metodologiak berrikustera eta ebaluazioaren aldaketa egitera eraman behar gaitu. Gaitasunak zailtasun maila bat izan behar du, eta hainbat lan hartu behar ditu bere baitan. Gainera, prozedurazko izaera izan behar du, aplikaziozkoa. Metodologiak berrikustera garamatza, metodologiak curriculumeko hainbat arlotako eduki horiek txertatzeko aukera eman dezaten, ikasleek bakarrik edo taldean lan egiteko

aukera izan dezaten, eta gaitasun handiagoa emango dien ezagutza hori erakitzen joan daitezten. Horrez gain, ebaluazio irizpideak ere berrikusi behar ditugu.

Izan ere, kontua ez da soilik gaitasun horiek lantzea, baita eta horiek ebaluatzea ere.

Jakina. Ezagutzak ebaluatzen denok dugu abilezia handia. Errazena ikasleak gai bati buruz dakizkien kontzeptuak ebaluatzea da. Baina, ikasle batek egiten dakiena ikusi behar badut, jarrerazko osagaiak dituen zerbait ebaluatu nahi badut, adibidez, ikasle batek ingurumenarekiko sentikortasunik duen edo ez jakitea, zailagoa da. Labortegiko praktika batean hondakinak nora botatzen dituen, ekipamendua behar den bezala erabiltzen duen, birziklatzen ote duen... begira dezaket, baina jarrera epe luzera sortzen da, hainbat osagaik osatzen dute. Jarreraren ebaluazioa zaila da. Ebalua daiteke, badira horretarako tresnak, baina segurtasun eza sentitzen dugu. Tradizionalki erabili ez ditugun edo gutxiago erabili ditugun tresnak erabiltzera behartzen gaitu. Nik uste dut irakasleak asko arduratzen garela objektibotasunaz, zuzenak izateaz, eta horregatik bilatzen ditugu zuzenak garen sentsazioa ematen diguten gauzak, zenbatu daitezkeenak eta zuzentzeko objektiboak direnak. Objektiboagoa da test erako proba bat, eta zuzentzeko oso erraza da, baina ez digu jarreraren gaineko informaziorik ematen. Beraz, objektibotasunari uko egin behar diogu ebaluazio objektuei egokitutako estrategiak bilatzeko.

Zer motatako estrategiak erabili ditzakegu ebaluazioan?

Lehenengo, pentsatu behar dugu pertsonak gaitasuna duen edo ez ezin dugula zuzenean ebaluatu, bizitzan zehar hainbat testuinguru eta unetan topatzen dituen arazoei irtenbidea aurkitzen dien arte. Ezin ditugu gaitasunak zuzenean ebaluatu, baina bai ekintzak. Gaitasunak ekintzen bidez ebaluatu

behar dira, irakasleak beha ditzake, edo ikaskideek, edo ikasleak berak, edo ekintza horien ebidentziak jaso ditzake irakasleak, hots, lanak, dokumentazioa, materialak, produktuak... Beraz, gaitasunen ebaluazioan garrantzia galtzen duten probak daude, eta beste tresna batzuek hartzen dute garrantzia. Administrazioak egiten dituen oinarriko gaitasunen kanpo probak mementoko argazki baten antzekoak dira, baina gaitasunen ebaluazioak bideo baten antzekoa izan behar du, aurrerapena ikusteko: nola zegoen ikaslea hasieran eta zer aurrerapen egin duen. Garrantzitsuena ebaluazio diagnostiko hori da. Aurrerapena ebaluatu behar badugu, abiapuntua zein izan den ikusi beharko dugu.

Garrantzia galtzen duten probak daude, ebaluazio tresna berriak erabili behar dira, baina azterketa idatziak ez zenituzke alde batera utziko...

Nik ez. Hezkuntza sistemaren hainbat mailatan, ezagutzak integratu eta aplikatu baino lehen, zenbait gauza jakin behar dira, eta gutxieneko horiek ikasle guztiek dakizkitela bermatu behar da, beraz, hainbat proba idatzi egiteak zentzua du.

Zer mailatan, adibidez?

Hezkuntza sistemaren edozein mailatan. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, edota Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hainbat gauza ikasi behar dituzte eta irakaslea, ikasleek horiek dakizkiten edo ez jakin behar du. Gaitasuna izateko ezagutzak, prozedurak eta jarrerak izan behar ditugu. Osagaiak dira, eta osagai horiekin prestatzen duzu janaria. Ez dut uste osagai horietako bat neurtzeko probak alde batera utz daitezkeenik. Uste dut proba idatziek bertuterik badutela, baina ez dira tresna bakarrak eta beste batzuekin bateratu behar dira. Hezkuntzan, batzuetan, penduluaren legearekin aritzen gara, alde batetik bestera joaten gara: edo dena azterketak, edo azterketarik ez. Oreaka bilatu behar da, eta, gainera, askotariko proba idatziak daude. Azterketa bat hainbat erataria planteatu dezakegu, adibidez, "Zer urtetan izan zen Frantziako Iraultza?" galde dezakegu, edo beste hau: "Zein dira Frantziako Iraultzaren ondorio politikoak eta zer eragin dute gaur egungo sistemak?". Azken horrekin beste gaitasun batzuk ebaluatzen ari gara. Uste dut galdetzeko dugun erak pisu handia duela. Esan nola ebaluatzen duzun eta zer motatako galdera egingo duzun, eta zer ikasiko du-

dan esango dizut. Nik uste dut izaera erreproduzitzailerik hutsa duten probak alde batera utzi behar ditugula, askotan segurtasun handia emango digutela, baina ez dutelako luzera begira ikaskuntza adierazgarririk sortzen. Pertsona askok gogoratzen ez dituzten gauzetan nota onak dituzte, baina horiek ez zuten luzerako ikaskuntza adierazgarririk edo funtzionalik sortu.

Beraz, zer motatako galderak egiten ditugun eta nola egiten ditugun pentsatu behar dugu...

Bai. Gaitasunak ebaluatzeak, ezagutzak integratzeko gaitasuna ebaluatzea eta ezagutza horiek aplikatzera garamatza. Batzuetan, irakasleok oso era itxian galdetzen dugu, ez dugu aukera berriak sortzeko betarik ematen, aurrez eskainitako aukeren artean hautatu egin behar da, eta, batzuetan, lanek ez dute sormenerako edo integratzeko aukera handirik ematen. Integratzeko eta ezagutza horien aplikazioa ahalbidetuko duten ebaluazio proposamenak pentsatu behar ditugu. Proiektuak, praktikak, simulazioak, arazoetan oinarritutako ikaskuntza... Metodologia horiek ezagutzen aplikazioa ahalbidetzen dute, eta erreproduzitzailerik diren proposamen horietatik haratago doaz. Hori era jarraituan egin behar da, gaitasunetan aurrerapena ebaluatzen delako. Beraz, jarraipena ebaluatu dezakeen sistemaren bat topatu behar dugu.

Zer motatako probak erabili daitezke gaitasunen ebaluazioan?

Lehenago esan dudana moduan, ezin gara paper eta arkatzeko probak egitera mugatu. Oinarriko gaitasunek egoerak konpontzera eraman behar gaituzte, eta, horretarako, ezagutu, aplikatu eta aldatu egin behar dugu, sormena erabiliz. Gaitasuna izatea aukeratzeko irizpidea izatea da. Horrek, ebaluaziorako arrastoren bat eman diezaguke: zer motatako ebaluazioa egin dezakedan ikasleek irizpiderik ba ote duten jakiteko. Ziur aski, paper eta arkatza erabiltzen dituen pro-





// **Ikasle bati autoebaluazioa egiteko eskatzen badiogu, "oso ongi" egin duela esango digu. Kalifikaziora jotzen dugu, baina autoebaluatea, autokalifikatzea baino gehiago, egin dugun lanaren gaineko hausnarketa egitea da; zein izan diren gure mugak, aurkitu ditugun zailtasunak...**



ba batean, badira jakin ditzakedan gauzak, baina beste batzuk ez ditut jasoko. Mota horretako probez gain, behaketak eta beste mota bateko metodologiak eta ebaluaziorako estrategiak ere beharko ditugu. Diagnostika egiteko balio duen ebaluazioa eta ebaluazio hezigarria behar dugu, eta gaitasunen ebaluazioak jarraitu ditugun prozesuei buruzko hausnarketara eraman behar gaitu. Idaztearen garrantzia azpimarratu behar da; adibidez, egun baten amaieran-edo aste baten amaieran, ikasleek egun horretan ikasi dutena idaztea garrantzitsua da. Idazte prozesuak ikasi duenaren gainean jakitun izaten laguntzen dio. Esan dezatela zer ikasi duten eta nola ikasi duten. Baina hori galdera zailagoa da. Autoerregulaziora edo jarraitu diren prozesuen gaineko hausnarketara eramaten duten, eta bere indargune eta ahulguneak ikustarazten dizkioten ikaskuntza eta ebaluazio-estrategia guztiak, horiek dira ziur aski garrantzitsuenak gaitasunetan oinarritutako prozesuetan. Gaitasunak ebaluatzea prozesuak ebaluatzea da, eta produktuaren eta emaitzen ebaluazioa egiten ohituta gauden arren, prozesuen ebaluaziora pasatu behar dugu. Horrek ebaluazio jarraitua eskatzen du.

Zer esan nahi du ebaluazioa jarraitua izateak?

Ez du esan nahi denboran zehar zaitutako ebidentzia asko jaso behar dugunik. Lan asko eskatzeak bildumazko ebaluazioa ekar dezake, denboran zaitikatua, eta horrek ez du esan nahi ebaluazio horrek izaera hezigarria duenik. Baina, ebaluazio ebidentzia bakarra izan dezaket, proiektu bat, adibidez, eta askoz ere eraginkorragoa izan daiteke. Zergatik? Ikasleekin gainbegiratu dudalako, *feed-back* egon delako, eta *feed-back* horren eraginez, proiektuaren bigarren zatia hobetu delako, ahulguneak hobetu direlako.

Gaitasunak ebaluatzea, alde batetik, produktuak ebaluatzea esan nahi du, lan horien ebidentziak jasotzea, baina, batez ere, prozesuak ebaluatze-

ra eraman behar gaitu horrek. Badira lagungaitzaketen hiru gauza: lehen, behaketa, informazioa jasotzeko estrategia gisa; bigarrena, autoebaluazioa, norberak ikus dezan zer egiten duen ongi eta zer gaizki; eta, azkena, berdin arteko ebaluazioa, ikaskideen artekoa.

Prozesuak ebaluatzeak, hasierako ebaluazioa, ebaluazio hezigarria eta bildumazko ebaluazioa egitea dakar. Hasierako ebaluazioak, diagnostikoa egiteko balio duen ebaluazioak, ikasleek gai batekiko duten gaitasun maila zein den jakiten lagunduko digu. Bigarren pausoa, ebaluazio jarraitua izango da, hezigarria edo prestakuntzarako balio duena, eta, orduan, informaziorik garrantzitsuena emango diguten ebidentziak jaso behar ditugu. Bistakoa diren gauza batzuk badira, adibidez, Lehen Hezkuntzako irakasle batek badaki haur bat nahikoa autonomoa edo lagunkoia den edo ez, baina, badira prozesuan zehar informazio zehatz jasotzea eskatzen duten beste gauza batzuk, ikasleari hobetu dezan *feed-back* emateko aukera izateko. Informazioa jasotzeko tresnak izan behar ditugu prozesuan zehar, ikaslea nola dagoen ikusteko eta hobetzeko erabakiak hartzeko. Hobetzeko, garrantzitsuena *feed-back* da, zeren laneko ebidentzia asko jasotzen baditugu eta inolako itzulketarik ez badago, gaitasuna ez baita hobetuko.

Autoebaluazioaren garrantzia aipatu duzu.

Ikasle bati autoebaluazioa egiteko eskatzen badiogu, "oso ongi" egin duela esango digu. Kalifikaziora jotzen dugu, baina autoebaluatea, autokalifikatzea baino gehiago, egin dugun lanaren gaineko hausnarketa egitea da; zein izan diren gure mugak, aurkitu ditugun zailtasunak... Eta gauza bera berdin arteko ebaluazioari dagokionez.

Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzari buruz, zerbait berria balitz bezala hitz egiten dugu gaur egun, baina, beti hor egon den



zerbait da, ezta?

Bai. Gaitasunetan oinarritutako prestakuntza ez da ezer berria, beti prestatu dira pertsona gaituak eta prestatuntza profesionaleko inguruetan aspaldikoa dira. Beraz, ikuspegia aldatzea da. Gaitasunei lotutako gauza asko egiten ditugu. Eta horrek guztiak “herstura” gutxitzera eraman behar gaitu.

Orain arte, curriculumen diseinua-ren logika ezagutzen, curriculumaren arloetan, oinarritzen zen. Ikasgai bakoitzaren gaineko ezagutzak pilatzen joaten ziren eta, azkenean, horren guztiaren batuketak pertsona gaitua “sortzen” zuen. Gaur egun, ezagutza hainbeste hazten da eta hain azkar geratzen da zaharkituta, ezagutza hori guztia pilatzeak agian ez du zentzurik; ez dugu denbora fisikorik eskolan gauza gehiago emateko, eta gainera, denborak, gauza horietako batzuen balioa mugaratu du. Orduan, inoiz baino beharrezkoagoa da bestelako ikuspegia izatea. Horrek, jakina, ezagutzetan oinarritu behar du, ezagutzak hor egoten jarraitu

behar duelako, baina gaitasun handi horien zerbitzura egon beharko luke. Begirada aldaketa da. Ikasgaien zatiketara gaituztea da, eta diziplinarreko ikaskuntza guneak eta aukerak ematea, ez soilik ezagutza bermatzeko, baizik eta ikaskuntza adierazgarri gehiago sortuko duten ikaskuntza estrategiak bermatzeko. Horrek, luzera begira, erabilgarritasun handiagoa izango du. Beti prestatu ditugu gaitasuna duten pertsonak, baina orain beste era batera egin dezakegu, ikastetxe askotan egiten diren praktikak berreskuratuz eta zabalduz.

Aldaketa, orain era kontzientean planteatzen dela da.

Hori da. Zehaztea da kontua. Egin diren baina, agian, sistematikoki egin ez diren zenbait gauzaren irizpideak zehaztea. Zehaztu behar dira eta ezagutzaren markoa gaituz, gainera: ez daitezela izan soilik matematikak edo gizarte zientziak. Ikasleak topatuko dituen gauzak era errealean aurkezteak ezagutzera garamatza, eta ezagutzen

duzunaren artean gauza bat edo beste aplikatzera, unean komeni denaren arabera. Horrek egiten gaitu pertsona gaitu: irizpide batzuen arabera, gure ezagutzen artean egoera bat eraginkortasunez konpontzea ahalbidetzen diguten baliabide eta ezagutzen konbinazioa hautatzeko gaitasunak.

Elena Cano kexu da ebaluazioa, gaur egun oraindik, batzuetan, zigor edo menderatze tresna gisa erabiltzen delako, ikasleak kontrolatuta izateko tresna gisa. Oraindik badira, ikasleekin haserretzen direnean, bat-batean azterketa jartzen duten irakasleak. Ebaluazioaren ikuspegi hori gaituz, eta hobetzeko tresna gisa hartu behar dela uste du Canok.

Atlasa.net

Euskal Herria ezagutzeko tresna *on line*

atlasa.net, Euskal Herriko ekonomiaren eta gizartearen atlasa, tresna berria eta berritzailea da. Irakaskuntzan erabiltzeko tresna egokia da, Euskal Herriko ekonomiari eta gizarteari buruzko datu ugari eskaintzen baititu. Geografia, gizarte zientziekin zerikusia duten gaiak, matematika... hainbat ikasgaitan lantzeko moduko informazioa biltzen du, datu estatistikoak eta kartografia bateratua eskaintzen baititu Atlasak. Gainera, norberak bere beharretara egoki dezake *on line* dagoen tresna. Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, sortu du *atlasa.net*.

Atlasaren lehen bertsioa da orain bistara daitekeena, eta, bertsio horretan, demografiari eta gizarteari buruzko datuak zein adierazle makroekonomikoak ikus daitezke, baina Gaindegiaren asmoa web aplikazioa eta informazioa eguneratzen eta osatzen joatea da. Gaindegia 2004. urtean jaio zen, eta bere buruari jarri zion lehen erronka Euskal Herriko egoera ezagutzea izan zen; gizartea eta ekonomia gero eta hobeto ezagutzea. Hor kokatu behar da Atlasaren proiektua. Hori osatzeko erabili dituzten tresna grafikoak berritzaileak dira, eta orain arte eskaintzen ez zen formatuan eskaintzen da Euskal Herriari buruzko informazioa.

Euskal Herria hobeto ezagutzeko tresna da Atlasa, eta ikasleekin hainbat modutara erabil daiteke. Tokiko eta

Euskal Herriko kartografia sortzeko balio du, tokiko mapak eta Euskal Herriko mapak egiteko balio du, Euskal Herriko datuak Europakoekin alderatzeko aukera ematen du, hainbat datu estatistiko kontsulta daitezke... Atlasak, lurralde adierazleak eta gaikako adierazleak biltzen ditu. Multzo nagusiak soziodemografia, ekonomia, lurraren erabilera eta enpresa demografia dira. Beraz, hainbat ikasgaitan lantzeko moduko informazioa eskaintzen duen tresna da. "Euskal curriculumari dago-kionez, orain arte eskura ez zeuden hainbat datu izatea ahalbidetzen duen tresna da", esan digu Irati Azkue egitasmoaren arduradunak. Baina, bestelare, Euskal Herria dimentsio ekonomiko eta sozial nagusietan zertan den ezagutu nahi duenak, heldulekua izango du hemendik aurrera.

Ikasgelarako tresna praktikoa



Irati Azkue, *atlasa.net* egitasmoaren arduraduna.




Iratik tresnaren praktikotasuna azpimarratu du: "Atlasak Euskal Herriko kartografia bateratua jasotzen du lehen aldiz, eta informazioa geoerreferentziatua dagoenez, irudiarekin bat, tokian tokiko datuak erakutsi ditzakegu eremuan bertan. Horrek esan nahi du, datuak eta irudiak nahastuta, guk nahi dugun infografia sor dezakegula. Atlasan topa daitekeen informazioa ekonomiari eta gizarteari buruzkoa da, baina aukera ematen du norberak, irakasleak edota ikasleak, esate baterako, gai bati buruzko datuak sartzeko eta pertsonalizatzeko. Adibidez, talde lana egin badugu eta gure eskualdeko kutsaduraren gaineko datuak jaso baditugu, hori ere txerta dezakegu. Gainera, guk sortu dugun informazioa txertatu ondoren, hori irudikatuta ikus dezakegu". Horretarako, erabiltzailea erregistratzea beharrezkoa da. Era horretan, aldaketak norberarentzat gordeta gera-

tzen dira, gerora ere erabiltzeko, eta aplikazioa pertsonalizatuta izango dugu.

Informazioa gure beharren arabera molda dezakegu, Iratik esan digunez: “Bilaketak egin ditzakegu eta ikuspegi orokorra izan dezakegu, edo hori muga dezakegu. Esaterako, Euskal Herriko ikuspegi orokorraz gain, beste hiru maila ditu Atlasak: herrialdeena, eskualdeena eta udalerriena, hain zuzen ere. Bestetik, adierazleak aukera ditzakegu, eta gure lurralde eremuari begira horien ehunekoak ikusi. Adibidez, Urola Kosta eskualdea hartzen badugu, udalerrien arteko aldea zein den ikusi dezakegu mapa kromatikoan (koloretan), baina baita grafiko batean ere; zutabe grafikoan edo gazta eran”. Eta, Atlasak, hondoak hautatzeko aukera ere eskaintzen du. Hau da, definizioz, erliebean ikusten da aukeratutako lurralde eremua, baina *on line* tresna denez, hondoak alda daitezke, Internetek eskaintzen dituen baliabideen barnean, betiere: adibidez, *Open Street* edo *Google Terrain* erabiliz. Beraz, erliebeak ikusteaz gain, errepide mapak ikusi ditzakegu, esate baterako.

Bestalde, herri bat hartuz gero, Andoain, adibidez, Atlasak jasota dituen herri horri buruzko datu guztiak jaisteko aukera izango genuke. Datu horiek, ondoren, hainbat modutara erabil daitezke; esaterako, infografia sortzeko, datuak edozein lan edo txostenetarako baliatzeko...

atlasa.net, irakaskuntzan oso erabilgarria izan daitekeen tresna, denon eskura dago jadanik. Aurten, irakasle-en atala gehitu nahi diote Atlasari, eta blog formatua erabiliz, ideiak, zalantzak eta esperientziak trukatzeko aukera eskainiko du horrek. Horrez gain, etorkizunean, aplikazioaren erabileran oinarritutako ikasmateriaლა sortu nahi dute.



Web 2.0 hezkuntzan Elkarlana eta komunikazioa sustatuz

Enrique UMARAN

URIBE KOSTA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Gaizka IRIBAR

URIBE KOSTA INSTITUTUKO IKT DINAMIZATZAILEA

IES URIBE-KOSTA BHI Institutua Plentzian dago, Bizkaiko kostaldean, eta hainbat herritako ikasleak hartzen dituzte: Lemoiz, Gorniz, Plentzia, Urduliz eta Sopolakoak. Horren ondorioz, zailtasunak izan dituzte beti ikastetxe-giroa sortzeko eta guztien arteko komunikazioa errazteko. 2008. urterako IKTak hedaturik zeuden instituan, baina administrazio arloan, batez ere. Hori ikusita, egoeraren diagnostikoa egin zuten eta hainbat helburu zehaztu zituzten. Horiek lortzeko behar zuten tresna "Google Apps Educational Version" izenekoak eskaini die. Tresna horrek web 2.0 norabidean gauza asko egiteko aukera eman die, eta eskola komunitatearen arteko komunikazioa eta elkarlana sendotu dituzte institutuan artikulua- ren egileen diotenez.

2008rako IKTak oso hedaturik zeuden institutuan, baina arlo administrati- boan gehienbat, eta "goitik beherako" norabidean, hau da; zuzendaritzak pres- tatzen zuen informazioa irakasleon es- kura jartzen zen, baina behetik gorakoa faltan botatzen genuen. Urte horretan IKT Batzordea sortu zen, eta hori, zuzen- dariak, IKT dinamizatzaileak, Premia ar- duradunak, eta beste hiru irakasleak osa- tzen dute gaur egun. Guztion artean,

egoeraren diagnostikoa egin genuen:

* Orain arte **diseinuari garrantzi handiegia** eman zaio. Garrantzia edu- kiari eman behar zaio, ordea.

* Adituek (informatikariak, IKTen ar- duradunak, enpresa espezializatuak) egin ohi dituzte web guneak, eta haien "know-how" delakoa erakutsi nahian diseinatu dituzte. Ondorioz, haiek baino ezin ditzakete gaurkotu. Hori dela eta, ikastetxe eta, orohar, instituzio gehienen web guneen edukia zaharkiturik ego- ten dira eta sistema osoak porrot egiten du.

* Hemendik aurrera, edukia **gaur- kotua** egon behar du. Erabiltzaileek ho- ri gaurkatzeko gai izan behar dute, era **errazean**. Erabiltzaileak esaten dugu- nean, zuzendaria, ikasketa burua, admi- nistrazio langileak, irakasleak, ikasle- ak eta -zergatik ez- gurasoak eta ikasle ohiak ere kontuan hartzen ditugu. Nola- bait, demokratizatu egin behar da IKTen erabilera. Arrazoiak begi bistakoak dira: **eguneroko erabiltzaileak** horiek gaurkatzeko gai badira, web gunearen partaide sentiaraziko ditugu. Bestetik, erabiltzaileek edukia gaurkotua izaten lagunduko digute.

* **Web gunea** (eta IKTak orokorrean) adituaren eskuetatik kendu eta **jendea- ren esku ipini behar dugu**.

* Informazioaren **trukea** bilatu be- har da. Norabide bakarrekoa izan beha- rrean, **hezkuntza-komunitatea** sor- tzen lagundu behar du. Horretarako **2.0 erremintak** erabili behar dira.

Erreminta-kutxa

Helburu horiek betetzeko behar ge- nuen tresna "Google Apps Educational Version" izenekoak eskaini digu. Argi

dezagun, bada, zer den Google Apps, zein diren eskaintzen dituen zerbitzuak eta abantailak, eta zergatik aukeratu du- gun geure ikastetxeko IKTen gaineko ekimenetarako:

* Googlek sortu zuen 2006an, AEB- tan.

* **Web aplikazioak** eskaintzen ditu, era integratuan:

- *Google Docs*: Word-en, Excel-en eta Powerpoint-en antzeko web aplikazio- ak erabili daitezke. Dokumentu horiek sarean daude, beraz, Interneteko kone- xioa duen edozein ordenagailutik esku- ra daitezke. Horrez gain, dokumentuak beste erabiltzaileekin parteka daitezke, irakurtzeko edo nahi izanez gero, mol- datzeko aukera emanez.

- *Google Calendar*: Egutegiak kude- atzeko aukera ematen du.

- *Google Sites*: Web guneak sortzeko aukera ematen du, inongo programarik ikasi eta erabili gabe. Web guneak insti- tutuko domeinuan antolatuta geratzen dira eta irakasleak eskola emateko edo ikasleak haien lanak aurkezteko erabili ditzakete.

- *Google forms*: Inkestak egiteko erreminta paregabea dugu. Emaitzak kalkulu-orri batean gordetzen direnez, data kontaketa asko errazten da.

- *Google e-mail eta chat*: Helbide elektronikoa ikasle eta irakasle guztien- tzat. Gainera, zerrendak erabiliz talde oso bati e-maila bidaltzea, mementoko gauza bihurtzen da.

* **Erabiltzaileen kudeaketa zen- tralizaturik dago** administratzaile ba- ten (edo batzuen) menpe, baina aldi be- rrean malgutasun handia eskaintzen die erabiltzaileei.

* Erraza da erabiltzeko eta gaurko-

tzeko, ikasketa-kurba arina du; ez da adituentzat soilik.

* Edozein ordenagailutan eta programa berezirik gabe erabil daiteke, bai ikastetxean, bai norbere etxean, bai ziber-kafe batetik abiatzen bagara ere. Nabigatzailea soilik behar du (**cloud computing**).

* Ikastetxeentzat doakoa da.

* Balio anitzekoa da, hainbat gauza egiteko hainbat pertsonak erabiliko baitute.

* Erabiltzaileak, Informazioa noraino eta norekin partekatu nahi duen erabaki dezake. Edonorentzat, geure domeinuko erabiltzaileentzat, sortzaileak erabakitzen duen pertsona jakin batzuentzat edo erabiltzailearentzat soilik egon daiteke eskuragarri.

Non gaude

Aipatutako erreminta-kutxa erabiliz gauza asko egin daitezke web 2.0 norabidean. Izan ere, "informatika adituei" helburu horiek sinpleegiak irudi dakizkieke. Baina, proposamen horren berrietasuna ez da konplexutasuna, guztiontzat eskuragarri dugula baizik.

Esate baterako, gure azterketen data guztiak egutegietan jarrita daude, webgunetik bi klik eginez kontsultagarri. Ehundaka dira hileroko ikastetxe batean egiten diren azterketak, baina gure kasuan ez ditu adituak edota ikasketa buruak sartu; irakasle bakoitzak sartzen ditu azterketen datak minutu batean. Are gehiago, edozein ikaslek sar ditzake, horretarako bost minutuko trebakuntza jaso, eta egutegi horretako baimenak baldin baditu.

Beste lorpen batzuen artean, hauek aipatuko ditugu:

* Ikasturteko lehen egunean irakasle eta ikasle guztiak erabiltzaile-izena eta pasahitza dituzte, zerbitzu guztietara sartzeko. Era berean, zuzendaritzak, administrazioko langileak, atezainak eta Guraso Elkarteak kideek euren pasahitzak dituzte.



* Erabiltzaileak **taldekaturik** egon daitezke: 2B, 2D, Irakasleak, Agenda 21, IKT, Zuzendaritza, Guraso Elkarteak, MI-NEUS (Euskara departamentua), Idazkaritza, Minburuak (Mintegi guztien buruak) edota Eskola Kontseilua dira gure taldeetako batzuk. Talde horiek administratzaileek sortzen dituzte, eta edozein erabiltzailek erabiltzen ditu gero. Horrela, talde oso bati e-mail bat bidal diezaiokegu, edo egutegi edo site bat parteka dezakegu talde oso batekin. 2B-ko ikasle batek *2B@uribekostabhi.com* helbidera mezu bat bidaliz gero, taldeko ikaskide guztiei helduko zaie.

* Hainbat egutegi osagarri sortu ditugu: ikastetxeko egutegia (publikoa, jai-egunekin), irakasleen egutegia (irakasleentzat soilik: klaustroak, bilerak... jasotzen ditu), talde bakoitzeko egutegia (publikoa: lehen aipatutako azterketen sistema). Egutegi bakoitzean idazteko baimenak talde zehatz batzuetara muga daitezke. Jakina, egutegi pertsonala ere eduki dezakegu, gure hitzordu eta egin-kizun pribatuak gordetzeko, eta nahi izanez gero e-mail edo SMS bidezko abisuak bidaliko dizkigute, hitzordurik gal ez dezagun.

* Geure dokumentuak (testuak, kalkulatu-orriak, aurkezpenak, pdf-ak...) nabigatzailearekin sortu eta nahi dugun erabiltzaileekin edo taldeekin parteka ditzakegu. Artikulu honen zirriborroa, adibidez, *ikt@uribekostabhi.com* taldearekin partekaturik dago, eta IKT batzordeko edonork ikus edo alda dezake Internet bidez. Hala nola, mintegien erostetak eta kontuak, gelen erreserbak, araudi berria sortzeko kudeaketa... egin daitezke.

* Formularioen bidez inkestak, bozketak, azterketak, etxeko lanen kontrolak... egin daitezke, eta emaitzak automatikoki gordetzen dira. Azpimarragarria da edozein ikaslek plazarara dezakee-

la inkesta, eta ezartzen dituen pertsonak soilik ikus dezaketela.

* Sites erremintaren bidez webgunek sor ditzakegu, eta nahi dugun erabiltzaile edo taldeekin partekatu edo, hala nahi badugu, guztiei zabalik utzi. Izan ere, institutuaren webgunea horrela eginda dago. Proiektuek ere site propioa dute, eta baita mintegi eta irakasle batzuek ere. Zuzendaritzaren barne-kudeaketa site batean antolaturik dago, eta Eskola-Kontseiluak badu berea. Irakasleek zein irakasleek webgunek sor ditzakete HTML edo *Javascript* ezagutu gabe; eta ez dituzte *Frontpage* edo *Dreamweaver* instalatu behar, edozein esploratzailearekin alda baitaitezke; horretarako, "editatu" botoia sakatu, aldaketak egin, eta "gorde" botoia sakatu besterik ez da egin behar.

Eta gero, zer?

Irudimenak soilik jar diezazkioke mugak talde-lanari. Geuk, ikasturte barnean etekin handia atera diogu plataforma horri. Hezkuntza-komunitateak oso zabalak dira, hala ere, eta hurrengo ikasturteetan aukera horietan sakondu behar dugu irakasleok eta ikasleok, komunitateko beste arloetara hedatuz (gurasoak, ikasle-ohiak).

Baikor gaude, aurten zenbait oinarri ezartzea lortu dugulako: gela arrunt guztietan ordenagailu bat daukagu, eta WI-FI berriaren bidez ikasleak ordenagailu eramangarriekin konektatzeko aukera izango dute gelatik kanpo ere. Hala ere, ez dugu ahaztu behar IKTe pertsonen arteko komunikazioa erraz dezaketean arren, ezerk ezin duela aurrez aurre egotearen esperientzia ordezkatu. Horregatik bien erabilpena proposatzen dugu; informazio truke eraginkorra bermatzeko ez ezik, ikastetxearekiko partaidetza-sentimendua sustatzeko.

Hezkidetzaz eta hezkuntza ez-formala Nola landu hezkidetzaz aisialdian?



Edurne EPELDE

BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA ETA UDALEKUETAN
HEZITZAILE ETA ZUZENDARI GISA ARITUA

Hezkuntza ez-formaleko aisialdi egitasmoetan hezkidetzaz oso gutxi lantzen da oraindik Edurne Epelderen ustez, eta, artikulu honetan, hori lantzeko hainbat ideia bildu ditu. Lehen urratsa, hezitzaileen formazioa eta hausnarketa bultzatzea dela dio Epeldek eta ondoren, helburuen zehaztapena etorriko dela. Azkenik, egindakoa ebaluatu beharko du hezitzaileak. Horretarako, ordea, lan pertsonala ezinbestekoa da eta hezitzaileak, sexu eta generoez haratago, haur eta gazteak pertsona gisa hezi beharko dituzte.

Hezkuntza ez-formalean kokatzen diren aisialdi egitasmoetan oraindik orain oso gutxi hartzen da kontuan hezkidetzaz. Aisialdian garatzen diren hainbat egitasmo, hala nola ludotekak, udaleku irekiak, gaztelekuak edota udaleku itxiak, pertsonaren garapenerako bitarteko garrantzitsuak dira.

Aisialdian ez dugu klase magistralen beharrik izango, hezitzaileen jarre-

ra eta jokabideek, betetzen dituzten rolek, jolasari oso lotuak egongo diren ekintza gidatuek edota egunerokotasunaren antolaketa (jatorduak, garbiketarak, loa...) hartuko dute garrantzia.

Sistemaren antolaketa patriarkarrak, kapitalismoaren altzoan oso ongi irakatsi digu txiki-txikitatik jaiotako sexuaren arabera nola jokatu eta nola ez jokatu. Guztiok gara patriarkatuaren produktuak, haur, gazte, heldu, guraso, hezitzaile nahiz zaintzaile izan. Eta, nola egin ihes egoera horretatik?

Hezitzaileen formazioa

Lehenengo urratsa hezitzaileen formazioa eta hausnarketa bultzatzea izango da. Talde dinamiketan oinarritutako formazio saioak beharrezkoak dira. Hezkidetzaz kontzeptuaren kokapena egiteaz gain, norbere jarrerak eta

jokabideak aztertzeko aukera eskaintzen dute. Horrela, hezitzaileok zenbait galdera egin beharko dizkiogu geure buruari:

- **Norberak erantzun beharrekoak:** *Berdin tratatzen ote ditut neskak eta mutilak? Berdin egiten al diet errieta? Itxura fisikoari buruzko aipamenak nori egiten dizkiot gehiago? Neska bat edo mutil bat negarrez ari bada, zein da gure jarrera? Zein rol betetzen ditut nik? Saiatzen ote naiz nire generoari ez dagozkion rola, jokabideak eta jarrerak praktikatzeko?*

- **Hezitzaileek erantzutekoak:** *Erabiltzen ditugun txantxek, kontakizunak edota ipuinek zein erreferente bultzatzen dituzte? Darabilgun hizkuntza parekidea eta ez sexista ote da? Nola antolatzen dugu espazioa? Ba al dago ezberdintasunik espazioaren erabileran? Haurren eta gazteen esku-*



ra jartzen dugun materiala berdin erabiltzen ote dute neskek eta mutilek? Erabiltzen ditugun irudiek sexu baten edo bestearen protagonismoa bultzatzen al dute? Zein dira taldeko barregarriak? Eta astunak? Neska edo mutil bat hiztuna denean, balorazio bera egiten ote dugu?

- **Harremanak:** Ba al da ezberdintasunik hezitzaile nesken eta mutilen artean? Bileretan eta erabakietan partehartzea bera al da? Nola banatzen ditugu funtzioak gure artean?

Helburuen zehaztapena eta planifikazioa

Norbere lanketa pertsonalari, taldeko hausnarketari eta egitasmoari jartzen dizkiogun helburuen zehaztapena gehitu behar zaizkio. Batetik, helburuak zehazterakoan, ez da nahikoa izango gure egitasmoa hezkidetzagilea dela esatearekin. Helburu zehatzak eta lorgarriak planteatu behar ditugu. Geure neurriara eginak eta ebaluagarriak. Helburu handiak eta potoloak alde batera utziko ditugu.

Planifikatzerakoan, berriz, batetik ekintza gidatuak eta bestetik egunerokotasuna bera kontutan hartuko ditugu. Batez ere udaleku itxietan, egunerokotasuna markatzen duten une eta guneak ditugu: jatorduak, logela, atsedendaldia, garbitasuna... Horiek bereziki garrantzitsuak izango dira guretzat. Egunerokotasunaren antolaketan haur eta gazte guztiak etxeko zereginen parte bihurtzea eta egin behar horiek une positibo eta atseginak bihurtzea izango da gure ahalegina. Esaterako, garbiketa unea zigorrarekin eta zerbait desatseginarekin lotzea, ez da egokia. Garbitasuna, etxearen antolaketa edota jatorduen kudeaketa modu natural eta atseginean egiten saiatu beharko dugu.

Ekintza gidatuei dagokienez, zenbait galdera planteatu ditzakegu: Aurrera eramanean dugun ekintzak zein gaitasun bultzatzen ditu, zein balio? Zein harrera



izan dezakete nesken eta mutilen artean? Adibidez, dantza tailerra egiten badugu, ziurrenik neskek interes gehiago azalduko dute mutilek baino; olinpiadak antolatzen baditugu, aldiz, alderantziz gertatuko da. Ekintza motak orekatu behar ditugu eta gure helburuen arabera, bat edo beste lehenetsi beharko dugu.

Zoritxarrez, hezkidetzaren gaiarekin aisialdian ez dira oraindik orain, helburuaren arabera, aldaketarako estrategia kontziente gehiegi abian jartzen. Estrategia batzuk egoera batzuetarako balio lezakete eta beste batzuetarako ez. Beharrezkoa da haur edo gazte taldea ezagutzea eta horren arabera egokitzea. Dena den, hona hemen balagarriak izan daitezkeen zenbait estrategia:

- Tradizionalki emakumezkoenak izan diren zereginetan gizonaizkoak jartzea, eta alderantziz.

- Espazioei erabilera berria ematea, espazio zabaletan futbolaz gain beste dinamika batzuk sortuz.

- "Hezkidetzaren behatzailea". Eguneroko bi pertsona izan daitezke behatzaileak eta denen artean adostutako fitxa bat sortuz behaketa lana egin dezakete.

- Erabiliko ditugun ipuinak, kontakizunak... rolen inguruko hausnarketa egiteko aitzakia izan daitezke.

- Emakumezkoen parte hartzeasustatzen saiatuko gara. Horrekin lotuta,

nesken erreferenteak sortuko ditugu.

Estrategien eta egindakoaren balorazioa

Egindakoa asko edo gutxi izan, beharrezkoa da ongi ebaluatzea. Batetik, egitasmoak irauten duen bitartean hezkidetzaren gaia sistematikoki ebaluatzeko metodoan pentsatu behar da: adibidez, balorazio bileretan hezkidetzaren puntua beti sartzeara eta irizpide batzuen arabera ebaluatzea. Azkenik, aisialdiko egitasmoaren amaieran ere, ebaluazio orokorra egin beharko da; hau da, batetik, norberaren jarreraren hausnarketa pertsonala eta bestetik taldeak ezarritako helburuen eta aplikatutako estrategien balagarritasuna aztertzea.

Hezkidetzaren aplikatzeak, lan pertsonala eskatzen du derrigorrez. Hezitzaileok, jarrera aldatzea bultzatzen gaitu, eta pixkanaka sexu eta generoez gaindi pertsona gisa hezten ari garela jabetuko gara. Haur eta gazteak hezteko, lehenengo gure buruaz ikasi behar baitugu.

Ezin aipatu gabe utzi, gaiaren inguruan oso lan txukuna eta praktikoa egin duen Bizkaiko Urtxintxa eskolako Emaisia egitasmotik sortu den materiala. Gaira hurbiltzeko hainbat publikazio honako helbidean aurkituko dituzu: www.emaisia.org. Aipagarria da baita ere, Euskal Herriko Bilgune Feministak landu duen *Hezkidetzako Gida*.

Nola landu behar dugu konpetentzietan oinarritutako curriculum? Zer aldaketa dakartza? Eskola berrasmatu behar al dugu



Konpetentzietan oinarritutako erreforma mugimendua deitu dena, nire iritziz, berandu etorri da, eta nahasia eta presazkoa izan da. Eztabaida eta argibideak beharko lituzke. Erreforma hori, gaur egungo hezkuntza sistemekiko dagoen atsekabetik abiatu da. Zer gertatzen da gaur egun hezkuntza sistekin? Geldirik geratu direla dirudi eta ez dagoela horien erreforma egiterik. Zer egin behar da erreforma horiek soilik Aldizkari Ofizialetan egiten diren izen aldaketak izan ez daitezen?

Herralde gehienak pozik daude haien hezkuntza sistema populazioaren gehiengora, edo populazio osora, zabaltzen delako, baina, zer ari da gertatzen hezkuntzaren kalitatearekin?

Atsekabearen adierazle batzuk badira:

1- Eskola porrotaren maila altua da eta ikasle askok uzten dute eskola. Herriarren herenak ez du Derrigorrezko Hezkuntza amaitzen.

2- Gaur egun, ikasleen errendimendu akademikoa aurreikusteko aldagairik sendoena gurasoen kultur maila eta ikasketa maila izaten jarraitzen du. Beraz, non da eskolaren funtzio orekatzailea?

3- Eskolak zailtasunak ditu pentsamendu aplikatuaren, ezagutza kritikoa-ren eta herriarren sentitzeko, pentsatzeko eta ekiteko moduak antolatzen dituen ezagutzaren garapenerako.

Hezkuntza sistemek etengabeko erreformak egin dituzte egoera horren aurrean. Nazioarteko erakundeek hez-



Angel PÉREZ GÓMEZ*

MALAGAKO UNIBERTSITATEKO DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKETA KATEDRADUNA

kuntza sistemen oinarria berriz pentsatu behar dela diote. Erronka, hezkuntza sistema gaur egungo gizartera egokitzea da. Eta aldaketak ezin dira azalekoak izan, eskolaren muina, oinarria, berriz pentsatu behar dute. Aldaketa globala egin behar da, holistikoa eta osoa Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitateraino. Eta, oinarria, ezagutzak duen zentzuaren analisisa da. Zein da eskolan landu behar dugun ezagutza, eta nola landu behar dugu?

Ezagutza, adierazien multzoa da eta adieraziak, gizakiak historian zehar egokitzeko oinarritzko tresna gisa erabili dituen errealitatearen errepresentazio subjektiboak dira. Errepresentazio subjektiboek ezaugarri batzuk dituzte: aro,

historia, egoera eta aukera batzuekin lotura dutela. Eta izaera polisemikoa dute: objektua eta beharra adierazten dituzte, baita adierazi hori eraikitzen duen pertsonaren interesak eta itxaropenak ere.

Gizakiaren ezagutza subjektiboa da, sozialki eraikia, kontingentea eta historikoa, eta sistema edo metodologia zientifikoa sortzen du, adierazien eraikuntza pertsonen, taldeen, boterearen exigentzien... joeretatik etengabe babesten saiatzeko. Joerak ezagutzeko prozesua da, zeren joera subjektiboak saihestezinak dira gizakiaren ezagutzan. Baina, metodologia zientifikoak, ezagutza etengabe berrikusten, berreraikitzen, berrazaltzen aritzeko beharra planteatzen du, identifikatzeko akatsak saihesteko eta adierazi berrien zabalkuntza eta horien ahalmen epistemikoa sortzen joateko. Adieraziak zentzu-ardatzetan taldekatzen dira eta horiek errealitatea era jakin batean azaltzen dute, eta kulturak eratzen dituzte. Kulturak, belaunaldi berriak jaiotzen direneko sare sinbolikoak dira. Kulturak ezinbestekoak dira gizatiartze prozesuari eusteko, baina zailtzen jar daitezke aro, egoera eta historia batekiko lotura dutelako. Beraz, ezagutzak ezin du egiei buruz hitz egin, egiantzei buruz baizik. Kultura guztiak errespeta-garriak eta eztabaidagarriak dira.

Belaunaldi berriek aurreko belaunaldiek eraikitako adieraziak eskuratzeko prozesu horretan, bi prozesuk eragina dute:

-Sozializazioa. Prozesu horren bidez haurrak txikitatik komunitatearen tres-

na eta baliabide sinbolikoak eskuratzen ditu; ideiak, ohiturak, jarrerak... Baina kontzientziarik gabe eskuratzen ditu, kritikarik egin gabe, zalantzan jarri gabe. Sozializazio prozesua ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Komunitatearen ahuleziak eta indarguneak errepikatzen ditu.

- Heziketa. Haurra, sozializazio prozesuan eskuratu duen guztiari buruzko ontasun antropologikoa zalantzan jar dezan estimulatzen dugu. Haurra bere adierazien jabe egiten da eta kulturaren hesiak apurtzen ditu. Pertsonak sentitzeko, pentsatzeko eta egiteko moduak berriz pentsatzen ditu.

Idea garrantzitsua da ongi hezitako haurra eta ongi sozializatutako haurra ez direla gauza bera. Heziketa prozesua, etengabe zalantzan jartzen den eta etengabe kritikatzeko den prozesua da.

Pertsonak duen adierazi multzoa, zeinak kultura eratzen duen, berriz pentsatu behar da eskolan. Zer ari gara egiten eskolan? Heziketa? Sozializazioa? Biak batera? Nola egiten ari gara?

Bere adieraziak alderatzen ez dituen pertsona sozializazioaren erreproduzio hutsa eraikitzen aritea erraza da. Haratago doana, ordea, bilaketarako, aurkikuntzarako, alderaketarako, esperimentaziorako, ebaluaziorako, berriz pentsatzeko... prozesu metodologikoak txertatzen dituen, ziur aski, nortasun pertsonal kontziente eta zuhurraren sor-kuntzarako hezkuntza prozesu batera gerturatzen ariko da.

Ezagutza ez da objektu bat, prozesu bat baizik eta edukiak metodoak bezain garrantzitsuak dira. Edukien erreproduzio hutsa egiten badugu, ezagutza fosilizatzen dugu eta alferrikako bihurtzen dugu ulerkuntzarako, analisirako eta birformulazio praktikorako tresna gisa.

Ezagutzak, hainbat etapa eta maila bereiztu behar ditu:

1.- Datuak. Informazioak. Oinarrizkoak dira, horiek gabe ez baitago ezagutzarik, baina ez dira ezagutzak, horren osagaiak baizik.

2.- Kontzeptuak. Datuak hobeto erabiltzeko, elkar ulertzeko egiten ditugun taldekatzeak eta sailkapenak dira.

3.- Errealitatea interpretatzeko eskemak eta ereduak. Kontzeptu multzo bat taldekatzen dugu eta horiekien fenomeno bat, egoera bat... azaltzen saiatzen gara. Ereduen taldekatzeak teoriak ekartzen ditu.

Zer da ezagutza? Zer lantzen dugu eskolan? Errealitatea egonkorra eta erraza denean, datuak baliagarriak dira

hainbat belaunalditan. Gaur egun datuekin gainezka egiten dugu, etengabe. Hainbat ikerketek diotenez, pertsonak egunerokoa erabiltzen duen ezagutza bost urtetik behin bikoizten da. Gure haurrek datu asko jasotzen dituzte, informazio asko, eta euren buruetan gertzea ezinezkoa da, eta, gainera, ez da beharrezkoa, datu horiek erraz kontsulta ditzaketelako. Beraz, datu hutsek historikoki izan duten garrantzia gutxitu egin da eta orain, kontzeptuak, ereduak eta eskemek hartzen dute garrantzia. Hori eskolara eramatea beharrezkoa da. Eta XIX. mendeko eskola (gaur egun jarraitzen duguna) datuen eta informazioen erreproduzioan oinarritzen da. Beraz, erreforma beharrezkoa da eta baita eskola berrasmatezea ere.

Kontzeptuen, ereduaren eta eskemen eraketa

Pertsonak, errealitatea ulertzeko, elkar ulertzeko eta errealitatean esku hartzeko erabiltzen dituzten kontzeptuen, ereduaren eta eskemen eraketa bilduma zaila da. Ez soilik elementu kognitiboen bilduma, baita motibazioarekin, emozioekin, afektibitatearekin eta jarrerekin lotutako elementuena ere. Ereduak gure nortasun pertsonalaren sistema holistikoa integratzen dira. Ez da nahikoa eskolan diziplina akademikoak gertzea; pertsonengan, ulerkuntza, sentimendu eta ekintzarako eskemak ere garatu behar dira. Hori da heziketa praktika: pertsonen, aurrez bizi izan duten eta eskolarekiko paraleloa izan den denboran sortu dituzten eskema horiek azaltzeko aukera ematea, horiek ezagut ditzaten eta euren indarguneak eta ahulguneak non dauden ikusten has daitezen. Eta euren eskemak berriz osa ditzaten. Hori da eskolaren oinarrizko egitekoa: eskola berrasmatezea. Helburu nagusia, gaur egungo eskolan transmisio hutsak eta datuen, edota teorien oroimenezko erreproduzioak zentzurik ez duela ulertzea da, baizik eta eskolaren funtzio nagusia, ereduaren, kontzeptuaren, eta pertsonen pertzepzioa, interpretazioa eta jokabideak gidatzen dituzten eskemen berreraikuntza bultzatzen dela. Beraz, beharrezkoa da eraikuntza prozesu horri arreta eskaintzea. Hori da gure egiteko profesionala: prozesu hori erraztea.

OCDE-k eta DeSeCo-k 2000. urtean "Oinarrizko kompetentzien definizioa eta sailkapena" izeneko dokumentua kaleratu zuten eta oinarrizko hiru kompetentzia definitzea planteatu zuten:

1.- Gizakiek gaur egun arte sortu dituzten baliabide sinbolikoak (hau da,

Haurrak pixkanaka kompetentziak eraikitzen joatea nahi dugu, baina guk, beti bezala, edukiak eta trebetasunak programatzen ditugu.



ezagutza) era interatiboan erabiltzeko gaitasuna.

2.- Gero eta heterogeneoagoak eta ezberdinagoak diren taldeetan bizitzeko eta elkarbizitzeko gaitasuna.

3.- Garapen autonomorako gaitasuna. Ikasten ikastea.

Espainiako estatuan bost urte beranduago sartu da kompetentzien kontzeptua curriculumean, atzeko atetik sartu da, eta inork ez daki zer egin horrekin. Kompetentziak eta gaitasunak gauza bera al dira? Prozesua berandu etorri da, nahasia eta presazkoa izan da. Berandu iritsi bagara, ez da ezer gertatzen, egin dezagun prozesu lasaia eraginkorra izan dadin. Horrelako erreformek prozesu mantsoak, eztabaidatuak eta lasaia behar dituzte.

Kompetentziak interpretazio eta akzio sistema konplexuak dira. Egiten jakitea, eta egin nahi izatea dira. Gure arretaren fokuak dira, gure oinarrizko helburuak. Kompetentzien kontzeptua ezin da trebetasunekin nahastu, horiek kompetentzien osagaiak baitira. Geure burua engaina dezakegu edukiei infinitibo jarrita eta horrela kompetentzia bihurtu ditugula pentsatuta. Ez. Kompetentziak interpretazio eta akzio sistema konplexuak dira. Ezin dugu programaziorik egin kompetentzietan oinarrituz eta ezin ditugu kompetentziak hiruhilero edo hilero ebaluatu. Kompetentziak gure arretaren fokuak dira, erreferentzia markoak, gure oinarrizko helburuak. Haurrak pixkanaka kompetentziak eraikitzen joatea nahi dugu, baina guk, beti bezala, edukiak eta trebetasunak programatzen ditugu. Baina, zer eduki? Zer trebetasun? Beti bezala? Ez. Hori da berria. Eta geure buruari beti galdetu behar diogu: egiten ari naizen honek, kompetentzietara hurbiltzen nau edo urrundu egiten nau? Gure egiteko guztiari bestelako ikuspegia ematen dion giltzarria da.

Ikaskuntza akademizista tradizionalak bi sistema paraleloren eraikuntza bultzatzen du pertsonengan: egunero-



Zer motatako ezagutza eskatzen diegu ikasleei egun gutxi batzuk irauten badu? (...) Errealitateko balio duten kontzeptuak, ereduak eta eskemak. Hori da eskolan garatu behar den ezagutzaren eredua.

ko bizitzarako erabiltzen duguna eta eskolarako erabiltzen duguna. Eta, eskolan, ezagutzak erabilerarako balioa izan beharrean, aldaketarako balio du, notengatik aldatzeko, alegia. Nota batekin ordekatzeko ikasten da. Zer motatako ezagutza eskatzen diegu ikasleei egun gutxi batzuk irauten badu? Zertarako nahi dugu ezagutza mota hori? Zertarako balio du? Errealitateko balio duten kontzeptuak, ereduak eta eskemak. Hori da eskolan garatu behar den ezagutzaren eredua.

Iradokizunak:

Eskola curriculumaren diseinurako:

1.- Konpetentziak kontuan hartzen badira, estatuko curriculumak dokumentu laburra, sinplea eta oinarrizkoa izan behar du. Bertan, etorkizuneko herritarrak hezteko estatu horren lehentasun politikoak zein diren definituko litzateke. Horrela egiten dute Finlandiak, Ingalaterrak, Australiak, Zeelanda Berriak...

2.- Curriculumera erlokan zehaztu behar da. Irakasle taldea da haurren eta inguruaren ezagutza duen bakarra. Zergatik esan behar digu estatuak nola egin behar dugun lan? Horrek gure konpetentzia profesionala izan behar du. Norbaitek onartuko al luke, adibidez, Estatu Aldizkari Ofizialak sendagileei gutxiagatasun koronario baten diagnostikoa nola egin behar duten eta zer tratamendu jarri behar dioten esatea?

3.- Eskolan lantzen ditugun arazoak diziplinarteko hurbilketak izan behar dira. Helburua ez da diziplinak transmititzea, baizik eta ereduak lantzea, pertsonen pentsamendu, sentimendu eta jokatibideei buruzko ereduak lantzea, errealitatearen konplexutasuna ulertzeko eta horretan esku hartzeko gai izan daitezzen.

Metodologiak

1.- Ekintzak lehenestea. Ikasteko, prozesu aktiboetan inplikatzeko beharrezkoa da. Entzuten duguna ahaztu egiten dugu, ikusten duguna gogoratzen dugu batzuetan eta egiten duguna ikasten dugu. Ikaslea eskolara egitera doa eta ez apunteak kopiatzera. Ekintzan parte hartu behar dute, bestela porrot egingo dugu.

2.- Ez du balio edozein ekintza: benetako lanak izan behar dute, testuinguru eta egoera errealean.

3.- Kalitatea kopurua baino garrantzitsuagoa da. Bestela, ikaskuntza azalekoa izango da. Hezkuntzan, gutxiago, gehiago izaten da maiz.

4.- Lehenik bizipenak eta ondoren formalizazioak.

5.- Kooperazioa estrategia pribilegiatu gisa. Kooperazioak entzutea, eztabaidatzea, ulertzea, proposatzea, konpontzea, errespetatzea, elkarlanean aritzea, erraztea... dakar. Eta ikasten erakusten du. Kooperazioak guztia du, baina estrategia konplexua da. Kooperatzen ikasteak lana, sistema, jarrera eta pazientzia eskatzen du.

6.- Metakognizioa sustatzea. Haurrek euren burua ezagutzea, euren ahuleziak eta indarguneak ezagutzea. Eta autoerregula daitezela. Metakognizioa, ezagutza euren burua ezagutzeko erabiltzea da.

7.- Konfiantza eta segurtasun afektiboa eskaintzen duen giroa sortzea. Hanka gehien sartzen duena da gehien ikas dezakeena. Ez dugu akatsa ikaslea barrerari uzteko erabili behar.

8.- Arazoei lehen agerpenean heldu. Era guztietako arazoak haurrak txikiak direnean eten behar dira.

Aldaketak ikaskuntzaren testuinguruetan:

- Eskolara lan egitera joaten da.

- Lanerako espazioak askotarikoak izan behar dira. Isiltasunerako, ikasketarako, eztabaidarako, aurkikuntzarako... espazioak egon behar dira.

- Komunitatearen giro kulturalak eta produktiboak ikaskuntzarako espazio gisa erabil ditzake eskolak.

- Ordutegi itxiek eskolaren transmisiorako izaerari erantzuten diote. Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean, zer zentzu dute 55 minutuko eskolek? Soilik transmisioa den XIX. mendeko metodologiari erantzuten diote.

Ebaluaziorako estrategiak eta metodologietan aldaketak

Ikasleek irakaslea aztertzen dute eta irakasleak ebaluatzen duen erak ikasleek ikaskuntza prozesua baldintzatzen

du. Ebaluazioak koherentea izan behar du aurrez erabili den metodologiarekin. Nolakoan izan behar du ebaluazioak?

1.- Kalifikazioa eta ebaluazioa bereiztu behar dira. Ebaluazioa ikaskuntza hobetzeko egiten den diagnostikoa da, eta ebaluazioak jarraipena eskatzen du. Ebaluazioak jarraia izan behar du. Kalifikazioa kategorizazio bat da. Hautaketak zentzua duenean, kalifika dezagun, baina bestela ez. Derrigorrezko Hezkuntzan ez du zentzurik, baina ondoren bai, hautaketa egin behar delako.

2.- Konpetentzien osagai guztiak hartu behar ditu bere baitan. Ebaluatzen, papera eta arkatzarekin egiten diren azterketak baino tresna aberatsagoak erabili behar ditugu. Ikasleeraren sistema aldatu nahi baitugu. Papera eta arkata erabiltzen diren proben bidez, ikasleak duen ezagutza erabilgarria ezagutu nahi badugu eta ez soilik datuak, utz diezaiegun azterketara nahi duten material guztia eramaten. Egin ditzagun azterketak datuak erabiltzen ote dakiten jakiteko, ez datuen azterketak. Hori egiten du PISAk: hausnarketak galdeztzen ditu.


Aldaketak irakaslearen funtzioan

XXI. mendean irakaslearen funtzioa aldatu egin da, benetan ezagutzak transmititzera eta errendimenduak ebaluatzen mugatu nahi ez badugu eta konpetentzietan oinarritutako ezagutza bultzatu nahi badugu. Irakaslea, ikaskuntza prozesuan laguntzailea den aditua da, hark diseinatzen ditu prozesuak, hark antolatzen du testuingurua... Irakaslea, ikaslearen ezagutza era eraginkorrean nola lantzen den erakusten dion aditua da. Irakasleok, ikasleekin garatu nahi ditugun konpetentziak barneratuak izan behar ditugu. Irakasleok kontzienteki dakiguna eta inkontzienteki garena erakusten dugula esaten da. Beraz, aditu gisa ikasleei eskaintzen diegun testigantza oinarrizkoa da arazoei, egoerei eta testuinguru ezagunei eta arrotzei aurre egiteko orduan.

Unamunok zioen irakasleok, intelektual gisa, dilema etengabe bizi gara, euren interesak, ardurak eta ulertzeko erak ulertzeko haur bihurtzearen eta orientazioa eta irteerak eskaintzen dituzten aditu gisa aritzearen artean. Hark, dilema osagarri hori (konpromisoa-urruntzea) modu bizian bizi ziteza proposatzen zuen aholku hau emanda: *altu pentsatu eta sakon sentitu*.

* Angel Pérez Gómez *Cipuzkoako Hezkuntza Berriraketa Proiektuen jardunaldiak. Gaitasunak garatzen zireneko jardunaldietan izan zen eta testua, hantandakoaren transkripzioa da.*

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.




Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

ekaina

berriak

Gero eta elebidun gehiago dago Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan



Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta elebidun gehiago eta gazteagoak daude. 25 urtetan % 15 hazi da elebidunen kopurua; 1981ean baino 325.000 elebidun gehiago daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Eusko Jaurlaritzaren IV. mapa soziolinguistikoak utzitako datuak dira. Elebidunen hazkunde handiena gazteen artean gertatu da. 15 urtez azpikoen % 75ek euskaraz dakite. Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoako datuak gehituta, guztira 873.000 inguru dira elebidunak. 2006ko biztanleria datuak erabili dituzte mapa osatzeko.


Euskal eskola bizirik Iruñean



Arrakastatsua izan zen joan den maiatzaren 24an Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak Iruñean antolatu zuen XIV. jaia. *Bizi Euskal Eskola!* lelopean egin dute aurtengo ospakizuna eta agintariek jar ditzaketen traben gaitetik, euskal eskola bultzatzeko eta indartzeko borondatea azaldu zuten bertan bildutakoek. Festa giroan hainbat aldarrikapen egin zituzten: Txantreako Arturo Kanpion eta Axular ikastetxeetan bizi duten egoera larria salatu zuten, Euskal Herrian Euskaraz-ek Nafarroako Gobernua euskarazko hezkuntzarekiko duen jarrera salatu zuten, eta Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak euskal curriculumaren eta Euskal Unibertsitatearen aldarrikapenak eraman zituzten, Euskal Herrian Hezkuntza Sistema propioa eraikitzeke elkarlanerako deia eginez.

Hik Hasiren X. Topaketa Pedagogikoak

Jende ugari eman du izena dagoneko X. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetan. Uztailaren 1, 2 eta 3an izango dira Topaketak Donostian eta guztira 31 ikastaro eskaini dira. Zenbait ikastaro itxita daude honezkerok, baina oraindik ere baduzue beste batzuetan izena emateko aukera, kopuru mugatua izanik oraindik bete ez direlako, edo partehartzaile mugarik ez dutelako. Izena emateko: www.hikhasi.com.



“El secret de la lluna” filma estreinatu da

“El secret de la lluna” filma maiatzaren 10ean estreinatu zen Kataluniako zazpi zinematetan. Horren aurretik, maiatzaren 8an, Hik Hasi ekoiztutako “Ilargiaren sekretua” filmaren katalanezko bertsioa Bartzelonako Euskal Etxean aurkeztu zen, eta bertan izan ziren besteak beste, Pirritx eta Porrotx pailazoak. Dozenaka pertsona elkartu ziren eta aurkezpenean, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Alicia Garaialde filmaren zuzendaria, Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko kidea eta Gloria Castellví Música Trapellako arduraduna izan ziren. Aurkezpenaren ondoren, filma eskaini zen Euskal Etxean bertan, lehen aldiz katalanez. Pelikularen estreinaldia arrakastatsua izan zen eta asko izan ziren Bartzelonako Cinema Alexandrara, Bergako Cinemes Catalunya, La seu d’Urgelleko Cinemes Guiura, Mollerussako Cinemes Urgellera, Montblanc-eko Cinemes Casalera, Ripolleko Cinema Comtalera, eta Tàrragako Cinemes Majèstic-era gerturatu ziren pertsonak. Aurrerago, “Ilargiaren sekretua” fimarekin batera kalera-tu zen “Begiradaren heziketa” lana ere, katalanez argitaratuko da.



Selektibitatea eta baxoa aztergai

Euskal Herriak Bere Eskolak antolatuta, Selektibitatea eta Baxoa frogan gaineko azterketa pedagogiko eta politikoa egingo da datorren ekainaren 11n, Bilbon. Ikuspegi politikitik, herri gisa, Hezkuntza Sistema Nazionalaren bidean eman daitezkeen urratsetan dituzten ondorioak aztertuko dituzte, bereziki Euskal Curriculumaren aplikazioen zentratuz. Ikuspegi pedagogikotik, berriz, ebaluazio sistema bera izango da azterketaren oinarria. Ikuspegi kritikotik ebaluazio sistema horren gaineko hausnarketa abiatzea da EHBEn nahia, aurrera begira ireki daitezkeen aukerak aztertzeko. Partehartzaileen artean izango dira: Aiora Filarmendi, Euskal Herriak Bere Eskola-ko kidea (dinamizatzailea); Aitziber Plazaola, Ikasle Abertzaleak-eko kidea; STEE-EILAS sindikatuko ordezkari bat; LAB sindikatuko ordezkari bat eta irakasle bat. La Bolsa eraikinean izango da mahai-ingurua, 18:00etan.



Lehen Hezkuntzako ikasleek ordenagailu bana izango dute

Irailetik aurrera, sare publikoko eta sare kontzertatuko Lehen Hezkuntzako 5. Mailako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasle guztiek ordenagailu eramangarri bana izango dute eskolan, Isabel Celaa, Hezkuntza sailburuak jakinarazi duenez. Guztira, 10.000 ikaslek baino gehiagok izango dute eskolan lan egiteko ordenagailua, baina etxera eramateko aukera ere izango dute. Programa, ikasturtez ikasturte DBHko 4. mailaraino zabaltzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Ikastoletako hizkuntza sistema, Europar eredugarri

Ikastoletako hizkuntza sistema Europa osoan da eredugarria Leonard Orban, Europako Batasuneko Eleaniztasunerako komisarioaren iritziz. Euskal Herrian bisitan izan da Orban eta ikastoletan hizkuntzaren arloan egiten den lana azpimarratu du. Komisarioaren hitzetan, 23 hizkuntza ofizial daude Europar eta 60 hizkuntza gutxitu. TIL ereduari lotuta berriz, Euskal Herrian "bigarren eta hirugarren hizkuntza Europako herrialde askotan egiten den mailan hitz egin ahal izateko lan asko egin behar" dela esan du Orbanek.

Kalitate ziurtagiria eman diote Iñigo Aritza ikastolari

Altsasuko Iñigo Aritza ikastolak Kalitate Egitasmo Integratua (KEI) ziurtagiria jaso du. Hezkuntzaren kalitatea neurtzen du Kei-k, eta Horreum fundazioak kudeatzen du. Ikastolako kideek jakinarazi dutenez, "Europako kalitate estandar onenen parekoa da" KEI delakoa. Hamasei ikastolatan ezarria dagoen eredu da eta hezkuntza alorretik eta soilik hezkuntzarako sortutako kalitate eredu bakarra da.

Txikiak handi Okzitanian ere

Nafarroa Oinez Okzitanian aurkeztu dute *Txikiak handi* proiektuarekin batera. Okzitaniako kulturaren eta okzitanieraren alde lanean ari diren eragileekin eta hezkuntza arloko ordezkarekin bildu ziren Nafarroa Oinezeko antolatzaileak. Aurrez ere, Katalunian eta Aragoian izan dira proiektua aurkezten. Etxarri-Aranatzen iango da aurten Nafarroa Oinez, urriaren 18an. Andra Mari ikastolak antolatu du eta bildutako dirua eraikin berria egiteko erabiliko dute.

Ikastaroak

* **Diskalkulia eta "beste arazo" matematiko batzuk** **Noiz:** ekainak 1 **Non:** Bilbon **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa **Izena ematea:** inscripciones@fundacionnce.org **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org

* **Eskola Txikietako Topaketak** **Noiz:** ekainak 25 **Non:** Durangoko institutuan **Antolatzailea:** Eskola Txikiak **Izena ematea:** www.eskolatxikiak.org **Informazio gehiago:** www.eskolatxikiak.org

* **Interneten informazioa non eta nola aurkitu: zure lana xamurtu (Haurreskolak 08/09)** **Noiz:** ekainak 1-24 **Non:** Luis Briñas ikastetxean, Bilbon **Antolatzailea:** UEU eta Haurreskolak **Izena ematea:** www.haurreskolak.net **Informazio gehiago:** www.ueu.org

Behin-behineko irakasleek amatasun baimenik ezin dutela hartu salatu dute

Unibertitatez kanpoko behin-behineko irakasleek salatu dutenez, ez dute hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko amatasun baimena hartzeko aukerarik, nahiz eta legez eskubide hori langile eta funtzionario guztiei dagokien. Salaketa jarri dute Espainiako Lan Ministerioko Lan Ikuskaritzan eta horren arabera, Eusko Jaurlaritzak sexu diskriminazioa egiten du, eta familia kontziliazioaren aurka doa.

Hezkuntza Sailak, ordea, ez du uste sexu diskriminazioa egiten denik. Esan dutenez, euren lanpostuak dituen ezaugarriengatik ezin dute langileek amatasun baimenik hartu.

Borroka indartuko du Prekarioen Kolektiboak

Ahalmen urriko haurren eskolatzea bermatzen duten eskola bizirako laguntzaileak kexu dira eta botere publikoei lanbidearen ezagutza aitortzeko eskatu diete. Eskola laguntzaile izateko eskatzen den titulazio bakarra Baxoa da eta lehen urtean 60 orduko prestakuntza jasotzen dute. Kontratua hiru urtekoa izaten da eta behin baino ezin da berritu, beraz, sei urteren buruan lanpostua utzi behar izaten dute. Lanbidearen ezagutza eskatzen dute, baina Frantziako Hezkuntzak ez du eskaria onartu Fani Laskubek, Prekarioen Kolektiboko kideak esan duenez: "Iana ez dela lana erran digu Akademia Ikuskariak, funtzio bat baizik".

Abuztuan langabezian geratuko dira 63 eskola laguntzaile Pirinio Atlantiko-etako departamenduan. Bada beste lanpostu mota bat ordea, EVS izenekoa eta horiek eskola laguntzaileen funtzioa dute baina administrazio lanak ere egiten dituzte. Ekaina amaieran lanik gabe geratuko dira horietako 400.

Horren guztiaren aurrean, egoera aldatu arte presioa egitea erabaki dute, ahalmen urriko haurren eskolatzea eskubidea dela gogoraraziz.

Duela bi urte osatu zuten Prekarioen Kolektiboa, eta gizartearen elkartasuna lortzeko sinadura bilketa egin dute azken egunotan. Lanbidearen ezagutza aitortzea eta lan baldintza duinak lortzea da Prekarioen Kolektiboaren helburu nagusia eta bide horretan LAB sindikatuaren eta Snuipp sindikatuaren laguntza jasotzen dute. 2.200 sinadura inguru aurkeztu dituzte Baionako Akademia Ikuskaritzan.

Baigorriko kolegioak ikasgela elebidun berria izango du

Baigorriko kolegioan ikasgela elebiduna irekiko da datorren ikasturtean Bordeleko Akademiako Errektoreak jakinarazi duenez. Hiriburuko kolegioa ere, elebiduna izango da irailtik aurrera eta bi horiekin eskaintza indartu dela nabarmendu nahi izan du Euskararen Erakunde Publikoak. 2004tik Bigarren Hezkuntza elebiduna egiteko aukera % 27 igo dela adierazi du Bordeleko Akademiako Errektoreak eta EEP-k, eskaintzaren indartzea azpimarratu du.

Carles FONT psikomotrizista gogoan

Ikasturte honetan bertan Hik Hasik antolatutako psikomotrizitate-ari buruzko jardunaldian aritu den CARLES FONT kalatana zendu da. Hura ezagutzeko zoriona izan dugu eta agertu zuen prestutasuna eta haren esperientzia gurekin partekatu izana eskertu nahi dizkiogu.

Hik Hasiko 134. zenbakiko elkarrizketa nagusian ekarpen handia egin zuen. Eskerrik handienak utzitako guztiarengatik. Ez adiorik.





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen maitezeko eztabaidak utzi diguna...

>>> **Administrazioak etorkinen eskolatzean esku hartzen du batzuetan. Zenbait herritan, adibidez, eskola jakinetara bideratzen dituzte. Bide egokia ote da hori?**

> Administrazioak esku hartu behar du, nola ez. Batez ere, herriko udalek, etorkinei harrera eginez, egoera ezagutaraziz eta normalizatzen lagunduz eta hezkuntza aukerak eskainiz. Eskolatzeko orduan ere, etorkinek ezagutu behar dituzte herriko eskolak, zer eskaintzen duten, dituzten hezkuntza priedtuak, zer baldintzetan eskolatuko liritekeen eta abar. Udalek eskaintzen dutena kontuan hartzea ona izango litzateke etorkinentzat, non eskolatu azken erabakia haiek hartzen badute behintzat. Zentzu horretan, herriko ikastetxeen artean elkarlana egotea eta planifikazio komuna bideratzea etorkizunerako osasuntsua izango litzateke. Animo eta lanera! *Mikel*

> Gaur egungo antolaketa administratiboekin posible al da baldintza berdinetan jardutea? Langileek eta ikastetxeek administratibotik jasotzen duten tratua desberdina bada, nekez joka liteke berdintasunaren parametroan. (...) Herri bereko bi eskola. Betebehar berdintasua eskatzen bazaie, eskainiko zaizkien bitarteko ekonomiko, material eta pertsonala bertsuak izan beharko liriteke, ezta? Gaurko antolaketak, aldiz, hori guztia ukatu egiten du. Gure herritik kanpo erabakitako parametro diskriminatorio eta zapaltzaileak legez jartzen ditu. Bitartean gu, bidean galdurik, errudunen bila. Noiz piztuko dugu argia, behingoz! *Mila*

> Herriko administrazioan dago gakoa, Udalean. Baina ba al du Udalak eskumenik eta bitartekorik etorkinen gaia bere egiteko? Duela gutxi irakurri nuen Hernanin, hiru ikastola publiko eta moja ikastetxe bat daudela Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Ikasle etorkin gehienak mojetara joaten omen dira eta 20 estatutako 80 bat ikaslerentzat hizkuntza laguntzaile bakarra omen dute. Hori ez al da herriarentzat porrota? Baldintza horietan, nola lagun liteke etorkinen integrazioa eta normalizazioa? Nola lor lezakete beste herritarrekiko berdintasunaren eskubidea? *Manu*

> Ez al dira administrazioekin batera herriko eragileak egon behar? Horrela ez bada, herriko bizitza ez badago, zaila izango da herritarren arteko gertutasuna egotea eta elkarri entzutea. *Miren*

> Lurralde bereko ikasleak ikastetxe desberdinetan jartzeak ba al du zentzurik? Pentsa dezagun, bi familietako bi euskaldun Alemaniako herri berean, ba al du zentzurik bi ikastetxetan banatzeak? Nola laguntzen zaie gehiago, banatuta ala elkarrekin jarrita? Arabiarrekin, errumaniarrekin edo ekuatoriarrekin ez al da gauza bera? Hizkuntza eta kultura bertsuak baldin badituzte behintzat, nik elkarrekin jarriko nituzke, eta hortik aurrera nola jokatu, ongi aztertuko nuke. *Maria*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> **Krisia guztion ahotan dabilen garaiotan, zure inguruan, hezkuntza arloan, nabari al duzu horren eraginik? Zertan sumatzen duzu hori?**

Partekatze proiektuak

Eskuarte proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzea bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza abiarazteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!


argitalpenak



Malanjele pirata

J.M. Olaizola Lazkano "Txiliku"
ELKAR

Hitzen bilduma egiten du Aingeruk: aingeru, pirata, katagorri grisa... eta zerrenda horretako beste hitz bat alzheimer da. Izan ere, Malanjelek, Aingeruren aitona, alzheimer gaixotasuna du. Literatura eta bizitzari buruzko lezioa uztartu ditu idazleak. Eider Eibarrek egn ditu irudiak. 8 urtetik gorakoentzat •




Jon eta zaldia
Jabier Muguruza
EREIN

Ainhoa aitarekin bizi da eta egun batez, aita triste aurkitu du. Ainhoaren aitak zaldia zaintzen ditu eta zaldi batek ihes egin duelako dago triste. Ainhoa zaldiaren bila aterako da basora, baina aitak egia esango dio azkenean: bizitzeko dirua behar zutelako saldu du zaldia. Mari Mar Agirrerrenak dira irudiak •



Bat. Soziolinguistika aldizkaria
70. zenbakia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
"Euskararen legeak" dosierra eta hainbat artikuluko txertatu dituzte: "Euskararen araubide juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian", "Euskara eta legegia Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak", "Milaka urraketa Euskararen legeen babespean" eta "Hizkuntzak enpresan, legetik haratago", besteak beste •




Zuberoako literaturaz
Jean-Louis Davant
EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiak argitaratzen duen "Euskaltzainak" bildumaren bederatzigarren zenbakia da. Zuberoako literaturaren antologia eskaintzen digu idazleak XV. mendetik hasi eta XX. mendera arte. Zuberoako literaturaren antologian zegoen hutsunea bete nahi izan du Davantek •



Fauna exotiko inbaditzailea
Euskal Autonomia Erkidegoan
EUSKO JAURLARITZA

Biodibertsitatea zaintzeko eta berreskuratzeko egin beharreko ekintzen plangintza egokia diseinatzeko lagungarri izan nahi du liburuak. Espezie exotiko inbaditzaileak zorrotz kontrolatzeko eta errotik desagerrarazteko gure ekosisteman berezko dibertsitatea berreskuratzeko lagunduko dutela azpimarratu dute egileak •



Tantak
EHU

Bost artikuluko bilduma dituzten Tantak aldizkariaren azken alean, horien artean: "Hizkuntzen kudeaketa eskolan", "Espainiko Bigarren Errepublikaren garaia hezkuntza berrikuntzari begira", "EHU-ko orientazio psikopedagogia-ko praktikumetik orientatzailearen lanbide kompetentzien ikasketa", eta "Kalitatea hezkuntza: ikerketa baten ondorioak" •

... nora joango gara?

BKZ abentura

Nafarroa Garaiko Narbarten eta Nafarroa Behereko Bidarrain

Bertizko jaurerritik kilometro batera topatuko dugu BKZ abentura, Narbarten. Natur giroaz gozatuz, hainbat kirol jarduera egiteko aukera ematen du inguruak: raftinga, ur lera, piragua, kanoraft, zintzur jaitsiera, soka zirkuituak, tirolina, paintball, BTT... Eta horietako batzuk oso gertu gainera, izan ere, Lakoizketako hariztian adin guztietako soka zirkuituak, tirolinak eta paintball egiteko aukera baitago.

Kirola eta abentura bateratzen diren gunea da BKZ abentura. Ikasle taldeak urte guztian zehar hartzen dituzte, eta udalekuak ere egiten dira bertan. 1993. an jarri zuten abian proiektua hiru lagunek, naturarekin harremanetan, kirol eskaintza egiteko asmoz, eta 16 urteotan ehundaka pertsona izan dira



bai Narbarten eta baita Bidarrain ere.

gelak, komunak eta otordutxoak egiteko mahaiaik daude.

Bidarraiko ur basea

Bidarrain (Nafarroa Beherea) BKZ Nafarroa Abenturak Errobi erreka baxterean urbizietako basea du. Alda-

Autobus eskaintza

Ikastetxeetatik joan-etorria egiteko 56 plazako autobusa ren zerbitzua du.





BKZ ABENTURA

Bertiz aterpetxea

Telleria Etxea

31793 NARBARTE (Nafarroa)

www.navarraaventura.com

bkz@navarraaventura.com

Telefona: 948 592 322

Faxa: 948 592 102



Oharrak:

- Jarduera guztiak egiteko arropa eta oinetako erosoak eramatea komeni da.
- Jarduerak egiteko behar den materiala BKZ abenturako arduradunek uzten dute.
- Aterpetxeak 84 lagunentzako tokia du.

Jarduerak:

Rafting: gidari profesional batek gidatutako baltsa baten bidez, Errobi eta Bidasoa ibaien II eta III mailako jeitsiera. 2 orduko iraupena. Igeri egiten jakin behar da.

Ur lera: ur lera batez eta aleta batzuekin, erreka ur bizien indarra narbarituko duzu. Edonorentzat egokia (I-II-III mailak). 2 orduko iraupena. Igeri egiten jakin behar da. 10 urtetik gora.

Piragua: piraguan, eta gidari profesional baten eskutik Bidasoa edo Errobi ibaiko zati batzuen jeitsiera (I-II-III mailakoak). 2 orduko iraupena. Igeri egiten jakin behar da.

Kanoraft: biko untzi bereziak dira, egonkorak eta erosoak. II-III. mailako ibaiak jeisteko aukera ematen du.

Zintzur jaitsiera: urak mendez mende egindako zirrikitu ikusgarrietatik ibiltzeko aukera ematen du, rappel teknika erabiliz.

Soka zirkuituak: lehenik ikasketa zirkuitoan (urdina) aritzen dira eta ondoren, besteetara pasatu daiteke:

Haur zirkuitoa (horia): 4 urtetik gorako haurrentzat. Haurrek esku-erabilerara, arreta eta hausnarketa lantzen dituzte. Arduradun batek egon behar du haiekin.

Erdiko zirkuitoa (gorria): 9-10 urtetik aurrera. Joko erakargarriak eskaintzen ditu: zubi tibetarra, pasarelak, sarea, tirolina. Norberak egiten du ibilbidea.

Zirkuito luzea (beltza): fisikoki ongi prestatuta daudentzat. Erresistentzia eta ausardia proban jartzen dituen ibilbidea.

Tirolina: zirkuitu bakoitza tirolina batekin amaitzen da (lurreratzeko). Adin guzientzat aproposa den 30 metroko tirolina dago.

Paintball: jarduerarako beharrezkoa den materiala arduradunek uzten dute: maskara, buzoa eta 200 bola dituen markadora.

BTT: bizikletaz egiteko hainbat ibilbide daude: Bertizko Natur Parkea, Bidasoako Trenbidea... nahi izanez gero gida profesional baten laguntza ere eskaintzen dute.

atzeko atetik



Jon ARRETXE

IDAZLEA

Ez naiz inoiz ikasle lar fina izan. Txikitan ez nien garrantzi handirik ematen nota onei, eta bost batekin gainditzearekin konformatzen zirenetakoa nintzen, gutxiago estudiantzak kalean ibiltzeko denbora gehiago izatea suposatzen baitzuen, eta ni oso kalezalea bainintzen. Gurasoak nola edo hala kontsolatzen ziren, mutiko azkarra baina pixka bat alferra nintzela esanez.

Denbora aurrera joan ahala, ikasle eredugarria izatetik aldenduko ninduen beste zerbait gertatu zen: txuleten munduaren aurkikuntza. Berehala zaletu nintzen haiekin. Hasieran, estudiantu gabe gainditzearren egiten

Ikasle denbora

nituen, baina une jakin batetik aurrera, txuletak egitearen beraren plazerraz jabetu nintzen, eta pixkanaka, niretzat bizio bihurtu zen. Izan ere, txuleta polit bat prestatzea, txikitxo, ondo aprobetxatua, plastifikatua... arte lan txiki bat zen nire begietan. Eta azterketan poltsikotik mahaira ateratzea, irakasleari poker aurpegiar so, urduritasuna kontrolatzeko ahaleginak eginez, puenting egitearen antzeko esperientzia kilikagarria begitantzen zitzaidan.

Nire estudiante bizitza luzean aurrera joanda, Euskal Filologia amaitu ondoren, IVEF-SHEEri ekin nion, eta gero Ingeles Filologiari. Une jakin batean, aldi berean fakultate bateko ikaslea eta beste bateko irakaslea izatea suertatu zitzaidan, eta kontraesan ez eta sentsazio kontrajarriz betetako bolada izan zen. Ikasle jarduten nuenean, artean azterketa bat edo bestetan kopiari egiten nuen; eta irakaslearena egitea suertatzen zitzaidanean, nire azterketetan inork kopia ez

zezan ahalegin guztiak egiten nituen. Txuleta egitearen ulertzen nituen, identifikatuta sentitzen bainintzen haiekin, baina nire rola, halakoetan, poliziararena egitea izaten zen, eta horrek hainbat kezka eta buruhauste sorrarazi zizkidan.

Erabaki bat hartu beharra zegoen: bietako bati utzi behar nion, ikaslea izateari edo irakasle izateari, eta irakaslea izateari utzi nion, hileroko soldata edukitzeak ematen zidan larregiko erosotasunari muzin eginda. Harrezkero –hamar bat urte pasatu dira, idaztetik bizi naiz. Eta ikaslea izaten jarraitzen dut, Ingeles Filologian, Gasteizko fakultatean. Ez dakit noiz arte iraungo dudan horrela, nire helburua ez da errekorrik haustea, baina gustura nago eta ez daukat batere presarik fakultatea behin betiko utzeko. Hori bai, txuletak egiteari utzi diot, zeren lotsa handiegia pasatuko nuke nire adinarekin irakasleren batek kopiantzen harrapatuko banindu, lehenengo aldiz, harrapatu ere.



Facebook-en irakurria:

Atzo, 11 urteko ume batzuekin izandako elkarrizketa. "Daukazu Messenger?" "Ez". "Eta Tuenti?" "Ez". "Eta XXX?" (ez nuen ulertu zer esan zidaten) "Ez". "Eta internet?" "Bai". "Jode, y para qué lo usas?"

Iturria: Sustatu, 2009-05-20.



GAUZA ONAK TRANSFORMATUZ, GAUZA APARTAK LOR DAITEZKE.



IRUDI BERRIA. EDUKI BERRIAK. ESPIRITU BERA.

Aldatzen ari gara. Gauza berriak asmatzen ari gara interesatzen zaizuna modu egokiagoan eskaintzeko. Eduki berriekin eta irudi berriarekin, baina betiko espirituekin: zientzia eta jakintza zeure hizkuntzan helaraztea.



Harpidetu Elhuyar aldizkaria 49,50 €-ren truke.

11 zenbaki

ordenagailu eramangarriarentzako motxila



+



+

% 20 KO

Deskontua
Elhuyarren
produktuetan.



tziazen
ELHUYAR
unikazioa

sorginen etxea



EGONALDIAK IKASTETXEENTZAT:

Ipuinetan eta jolasetan oinarritutako egonaldia egin ahal izango duzue Sorginen Etxean. Sorginak edo aztiak bizitzeko era askea, alaia eta jostagarria zuten sendagileak eta pertsona arruntak zirela ezagutuko duzue. Mundu fantastikora bidaia egiteko aukera izango duzue, adimen emozionala landuz eta nortasuna eraikitzen duten jarduerak eginaz. Bi edo hiru egunez, sorginez mozarrotuko zarete, abestu, jolastu, leizeak bisitatu... Sorginen bizimodua ezagutuko duzue!

**MATRIKULA
ZABALIK!**

ZUGA PRAMURDI

